

Kultura Communication Desarrollo KCD ONGD

# 2022ko MEMORIA MEMORIA 2022



CINE  
**INVISIBLE**  
FESTIVAL INTERNACIONAL  
FILM SOZIALAK 2023 BILBAO





[www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org)

## Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE / ONGD

Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12  
CP 48902 - Barakaldo - Bizkaia

### Kontaktua / Contacto

Telefona / Teléfono: 94 602 46 68  
E-mail: [info@kcd-ongd.org](mailto:info@kcd-ongd.org)  
<https://www.kcd-ongd.org/>

### 2022ko lantaldea / Equipo de trabajo en 2022

#### Zuzendaritza Batzordea / Junta directiva:

Rosa María Pastor Rincón (Presidentea / Presidenta),  
Marta Renovales Pérez (Presidenteordea / Vicepresidenta),  
Pablo Ruiz Sal (Diruzaina / Tesorero),  
Juan Ramón Marcos Ramos (Idazkaria / Secretario).

#### Zuzendaritza / Dirección:

Juan Carlos Vázquez Velasco  
**Proiektuak / Proyectos:** Cristina Alba Pereda, Joseba Villa González, Ainhoa Pérez-Arróspide Navallas, Yolanda Barco Ramos

#### Administrazioa / Administración:

Leire Pascual Basauri

#### Produkzioa / Producción:

Gorka López Arantzamendi

### 2022ko praktika-taldea / Equipo de prácticas 2022

Erika Angulo Angulo García, Jon López Rivero, Paula Viteri Egurcegui

### IFK / CIF:

G95550943

### Edizioa / Edita:

KCD ONGD

### Diseinua / Diseño:

Binari Comunicación

**Azaleko Irudia/Imagen de portada:** Tehucarec-eko Istmoko emakume gazteak CECACI zentroan (Aholkularitza eta Trebakuntza Integraleko Nekazarrien Zentroa), Gorputza, lurraldea eta sexualitatea moduluaren amaieran. Oaxaca, Mexiko / Jóvenes mujeres del Istmo de Tehuantepec en el CECACI (Centro Campesino de Asesoría y Capacitación Integral), al cierre del módulo Cuerpo, territorio y sexualidad. Oaxaca, México.

# AURKIBIDEA ÍNDICE



<b>NOR GARA?</b>	<b>4</b>
¿QUIÉNES SOMOS?	42

<b>EUSKADIN GIZARTEA ERALDATZEKO HEZKUNTZA-EKINTZAK</b>	<b>9</b>
---	----------

ACCIONES DE EDUCACIÓN PARA LA TRANSFORMACIÓN SOCIAL EN EUSKADI	47
---	----

<b>KANPOKO GARAPENERAKO LANKIDETZA-EKINTZAK</b>	<b>25</b>
ACCIONES DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO EN EL EXTERIOR	63

<b>ANEXOA:</b>	<b>80</b>
----------------	-----------

<b>2022ko KONTU-BALANTZE LABURTUA</b>	
---------------------------------------	--

ANEXO: BALANCE DE CUENTAS ABREVIADO 2022	80
---	----

# 1 | NOR GARA?

Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE garapenerako gobernuz kanpoko erakunde bat da. Eusko Jaurlaritzak onura publikoko elkarte izendatu zuen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorean inskribatuta dago, AS/B/14091/2008 zenbakiarekin.

KCD GGKE elkartea independente eta laiko bat da, **giza garapen bidezko eta jasangarria lortze-ko** asmoarekin sortua. Helburu horretara iristeko, komunikazioa baliatzen du hainbat lan-arlo elkarri lotzeko tresna gisa, hala nola **gizarte-eraldaketarako hezkuntza, eragin politikoa eta nazioarteko lankidetza**. KCD GGKEk **herritar kritikoak sortu** nahi ditu bere estrategiaren bidez; **berdintasunaren alde egiten duten herritarrak, aniztasuna errespetatzen dutenak eta sozialki konprometituak**.

KCD GGKEk jakin badaki sinergiak eta aliantzak behar direla ibilbide hori egiteko. Horregatik, **Euskadiko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GGKE-en) Koordinakundeko** kidea 2014az geroztik. 2015ean, Garapen Jasangarriaren **2030 Agendaren** eta Nazio Batuek proposatutako 17 helburuen aldeko konpromisoa hartu zuen, eta, 2017tik aurrera, **(H)abian 2030** Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiaren partaide da. Era berean, **Hegoalde Globaleko kontrako alderdiekin lankidetzan aritzearen aldeko apustua** egin du, gizartea eraldatzea eta bidegabekeren aurka egitea baita haren nahia.

## MISIOA

KCD GGKEren MISIOA komunikazioaren eta kulturaren bidez giza garapen jasangarria, kulturarteko eta bidezkoa sustatzea da.

## IKUSPEGIA

GGKE bat den aldetik, nazioarteko erreferentzia izan nahi du kultura eta komunikazioa eraldaketa-estrategia gisa erabiltzeko zereginean, kulturarteko giza garapen zuzena eta jasangarria lortze aldera.

## KCD GGKE-REN PRINTZIPIOAK

1. Herritar globalak eta gizartearekin konprometituak.
2. Komunikazio demokratikoa, askotarikoa eta plurala.
3. Tradizionalki baztertuta egon diren kolektiboen eta komunitateen integrazioa.
4. Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea.
5. Aniztasun kulturala, etnikoa, erlijiosoa, politikoa, funtzionala, soziala, sexuala eta genero-identitateari lotutakoa errespetatzea.
6. Giza eskubide indibidualak eta kolektiboak.
7. Naturareniko harreman jasangarria.
8. Bake positiboaren kultura.
9. Pertsonen eta herrien arteko berdintasun-harremanak.
10. Migrazio-prozesuen humanizazioa.


## KCD GGKE-K EKITATEAREN ALDEKO APUSTUA EGIN DU

KCD GGKE konprometiturik dago, orobat, genero-ekitatearekin, eta, ildo horretan, milioika emakumek eta sistema patriarkalaren heteronormatibitatearekin bat ez datozen pertsonek jasaten

duten **diskriminazioa eta indarkeria amaitzea** du xede. Horretarako, **emakumeen partaidetza sustatu** nahi du politikagintzan, gizartean, kulturan eta esparru ekonomikoan, baita emakumeen ahaldunten indartu ere. Berdintasunaren aldeko lan horretarako, gainera, beharrezko da guztieng **inplikazioa, gizon zein emakume**, hala lortuko baita heteroarauari hortzak erakustea, baita bestelako sexu-orientazio eta -identitateen diskriminazioari ere.

KCD GGKEk apustu instituzional argia egin du sortu zenetik, **genero-ekitatea modu transbertsalean sustatzeko**, hala erakundearen jarduera guztieng nola dinamika propietan. Eta halaxe jasotzen du, gainera, bere plan estrategikoan, eta ikuspegi feministak txertatzen du lankideztako eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza-ekintzetan, euskal erakunde publiko eta pribatu espezializatuek proposatutako politikekin, dokumentuekin eta kodeekin bat etorri. Horregatik, **eguneroko ekintzen aldeko apustua** egiten du, **errerealitateak eraldatzeko** gizarte-bizitzako esparru guztiengan.

## EGITURA



Erakundearen egiturari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/conocenos?lang=eu>

## BOLUNTARIOAK

KCD GGKEk hainbat pertsona eta profesionalen babes jasotzen du, eta, haiei esker, honako ekimen hauek gauzatu ahal izan ditu: Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia, «Zinemagileen artean» emakumeek egindako zinema-karabana eta erakundeak 2022an burututako beste zenbait jarduera eta ekitaldi.



Erandioko Tartanga LHIko ikasleak, 2022ko Bilboko14. FICI galen erregiduriari laguntzeaz arduratzen direnak

- Guztira 16 pertsona (10 emakume eta 6 gizon) aritu dira **kanpo-batzorde** gisa, zinema-jaialdiaren azken hautaketa egin aurretik filmak ikusteko.
- Beste 21 lagunek (16 emakumek eta 5 gizonek) jardun dute **zinema-jaialdiko epaimahaikide** gisa, Zinema Ikusezinaren 14. edizioko lanak saritzeko.
- Horrez gain, 24 lagun (19 emakume eta 5 gizon) aritu dira **laguntzaile** gisa zinema-aretoetan, zinema-jaialdian eta karabanan.
- Tartanga LHIIko «Ikus-entzunezko projektuen eta ikuskizunen errealizazioa» goi-mailako zikloko 31 ikaslek (12 emakumek eta 19 gizonek) jardun dute zinema-jaialdiko **errejidore-lanetan**.
- Erakundearekin lankidetza-hitzarmena sinatu duten 15 ikastetxeetako 568 irakasle, berriz, tailerretan, zinema-jaialdian eta beste jarduera batzuetan aritu dira.

KCD GGKEko boluntarioen taldeko kide izan nahi baduzu edo beste edozein modutan lagundu nahi baduzu, idatzi helbide honetara: info@kcd-ongd.org.

### LANKIDETZA-AKORDIOAK HEZKUNTAZA-ERAKUNDEEKIN

- Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
- Deustuko Unibertsitatea
- Ibarrekolanda BHI, Bilbo
- Txurdinaga LHII, Bilbo
- Elorrieta Erreka Mari LHII, Bilbo
- Nicolás Larburu LHII, Barakaldo
- Tartanga LHII, Erandio
- Aixerrota BHI, Getxo
- Iurreta LHII, Iurreta
- Artaza-Romo BHI, Leioa-Getxo
- Mungia BHI, Mungia
- Ballonti BHI, Portugalete
- Saturnino de la Peña BHI, Sestao
- Bituritxa OLHUI, Barakaldo
- Bengoetxe BHI, Galdakao
- Gernika BHI

### TOKIKO ETA NAZIOARTEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO LANKIDETZA

- Ekologistak Martxan Ekobaraka
- Zinegoak, Bilboko gay-lesbo-trans Nazioarteko Zinema Jaialdia
- Barakaldoko HalaDzipo Musika Eskola
- Zirkodomoa Barakaldo
- Unesco Etxea, «Dame un minuto de...» izeneko film laburren lehiaketa
- Ongi Etorri Errefuxiatuak, errefuxiatuak babesteko plataforma
- Emakumeek zuzendutako zinema-erakusketa - Zinemakumeak Gara
- EHUKO Garapenerako Lankidetza Bulegoa
- Latinoamerikako Zinema Berriaren Nazioarteko Jaialdia, Habana, Kuba

- Kartagoko (Tunisia) Zinema Jaialdia
- Saint-Louiseko (Senegal) Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia
- Oaxacako (Mexiko) "El lugar que habitamos" irratia eta zine komunitarioko jaialdia

## 2022KO TESTUINGURUA

GGKE-en eta euskal erakundeen eginahalarekin, duela 35 urte hasi zen Garapenerako eta Gizarte Eraldaketaarako Hezkuntzarako Nazioarteko Lankidetza.

Hasiera-hasieratik, **politika neoliberalak nagusi ziren mundu batean moldatzen ikasi behar izan zuten GGKE-ek**. Filosofia ekonomiko horrek minimora murrizten du estatuen esku-hartzea, eta are gehiago kontzentratzen ditu aberastasuna eta boterea aberatsenen artean. Erantzun gisa, mundu zabaleko gizarte-mugimenduek eta GGKE askok beti erakutsi dizkiote hortzak globalizazio-mota horri. Eta, gaur egun, **buru-bellarri jarraitzen dugu lanean**, gerrek, klima-al-daketak eta elikagai-faltak eragindako **krisiak bata bestearen atzetik dituen mundu honetan**, aurreko baino gerra hotz konplexuago batibide eman diezaiokeen mundu zatikatu batean, hain zuzen.

**Urteak daramatzagu lanean Hegoalde Globaleko** herrialdeetan, «kontrako alderdi» deitzen diegun erakunde eta pertsonei laguntzen; erakunde horiek, ondoren, beren gain hartzen dituzte garapen-proiektuak beren herrialdeetan, eta tokian tokiko biztanleen mesedetan lan egiten dute. Kontrako alderdiok garapen-proiektuak prestatzen eta gauzatzen dituzte, Iparraldeko GGKE-en laguntzarekin, zeinek erakunde publikoen bidez lortzen baitute finantzaketa.

**Azpimarratzeko da, halaber, GGKE-ek gizarte-eraldaketaarako hezkuntzaren esparruan egindako lana**, bai Iparraldean, bai Hegoalde Globalean. Sortu zenetik, askotariko jarduerak egin ditu Euskadin gizarte- eta hezkuntza-prozesu horietan, herritar kritikoak eta arduratsuak sortzeko, bai esparru indibidualean, bai kolektiboan. Azken buruan, gizarte bidezkoagoak eta ekitatiboagoak lortu nahi dira, bai eta ingurumen osasungarriagoa ere.

Etengabe egin dira **aliantzak garapenerako lankidetzatik kanpoko eragileen** eta Iparraldeko zein Hegoalde Globaleko GGKE-en artean, eta, ildorretan, gure lanerako erabakigarriak dira herri-erakundeak, erakunde feministak, ekologistak, migracio-gaiei lotutakoak, ikastetxeak, unibertsitateak eta abar.

Nazioarteko lankidetzara bideratutako funts publikoak eskuratzeko, GGKE-ek denbora asko ematen dute korapilo burokratikoetan. Batzuetan, horrek efizientzia galtzea eragiten du, gastuak areagotzea, eta antsietatea eta ziurgabetasuna ere sorrarazten ditu GGKE-etako lantaleetan. Beste batzuetan, halaber, **inkoherentzia politiko eta instituzionalei** aurre egin behar izaten diegu, zeinak ez baitira bat etortzen garapenerako lankidetzako eta gizartea eraldatzeko hezkuntzako politikekin.

Euskadiko GGKEok mundu solido batean jaio ginen, non aldaketak geldoak eta, kasu askotan, aurreikusteko modukoak ziren; gure inguruabar horretan, kaleak, pertsona-taldeek eta kolektiboek mundu berri batekin amets egiteko espazioak sortzen zituzten. Baino Bauman soziologoak zioen bezala, gerora mundu likido batean sartu ginen, eta han oso azkar deformatzen zen guztia, harik eta gizakiok kalteberago bilakatu arte. Pandemiarekin, berriz, egoera likidotik gaseosora igaro ginen. Halako egoeretan, pertsonek elkarrenganako erakarpen-indar guztia galtzen dute, nor bere babeslekuan, lanean edo etengabeko mugimenduan dago beti, askotan erabat atsekabeturik. Hala, errazago lurrunzen dira ahalegin indibidualak, eta, soluziorik topatu ezean, lehertu ere egingo dira. Horretarako daude kontsumoaren balbulak, komunikabideak eta beste entretenimendu-modu batzuk. Egoera etereo horrek galarazi egiten du batasuna, eta giza zaurgarritasuna areagotu.

Alabaina, **energia berri horrekin, badugu gobernantza global berria eragiteko** aukerarik ere. Gobernantza horretan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errealtitate bihurtuko da, klima-aldaketari aurre egiteko konpromisoak beteko dira eta guzti onerako alternatiba ekonomikoak sortuko dira. Nazio Batuen Erakunde berritu bat bultzatzea ahalbidetuko duen bestelako egoera bat. Hori biziki lagungarria izango litzateke Garapen Jasangarriako Helburuak (GJH) betetzeko, bai eta etorkizunari baikortasun eta ilusio handiagoz begiratzeko ere.

Aldaketarako energia berri bat, emozio berriak sortzeko gai izango dena, aurretik ekologismoak, internazionalismoak, mugimendu antimilitaristek eta mugimendu feministek egin zuten bezalaxe. Indar positibo bat, munduko arazoei konponbideak bilatu nahi dizkieten eta konpromiso soziala duten pertsona guztiak kohesionatzea lortuko duena, tresna posible guztiak erabiliz: kultura, hezkuntza, zientzia, teknologia, politika... Guztia ere oraina eta etorkizuna desiragarria-goak izan daitezen.

Bien bitartean, Kultura Communication Desarrollo —KCD GGKE— erakundeko kideok lanean jarraituko dugu Hegoalde Globaleko kontrako alderdi lagunekin eta gure bertako lankide-sarearekin, giza garapen bidezko eta jasangarria lortzeko.

**Juan Carlos Vázquez**  
KCD GGKE Zuzendaria

## 2 | EUSKADIN GIZARTEA ERA DATZEKO HEZKUNTZA-EKINTZAK

KCD GGKEk Euskadin egiten dituen jarduerak gizarte eraldatzeko hezkuntzaren estrategiaren barruan kokatzen dira, hau da, **gizarte-alda ketarako eta garapenerako tresna** gisa. (H)abian 2030 estrategiarekin bat etorri, irizten diogu gizarte-eraldaketarako hezkuntzak **pentsamendu kritikoko prozesuak** bultzatzea ahalbidetzen duela, eta gizartearen aurrean ez ezik norberaren bizitzaren aurrean ere kontzientzia duten pertsona ahaldunduak eta arduratsuak sustatzen diuela. Hala sortzen dira bizitoki dugun errealtitatea eraldatu nahi duten herritar globalak.

Kategorizazio horrek aukera ematen digu begirada bat eskaintzeko, globaltasuna eta tokikotasuna lotuz, itxuraz urrun dauden errealtitateak hurbilduz eta ezaugarri desberdinak eta egoera batzuen eta besteen arteko loturak ulertzten lagunduz.

### BILBOKO «FILM SOZIALAK» ZINEMA IKUSEZINAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren 14. edizioak zinema konprometitua eskainiko du 2023an ere, **bizi garen munduaren aniztasuna irudikatzea helburu** duena, eta, ildo beretik, arazoak eta haietarako soluzio-proposamenak aurkeztuko ditu.

Zinema-jaialdiaren oinarria da sinestea **komunikazioa eta kultura oinarrizko giza eskubideak direla**, eta, aldi berean, beste eskubide batzuk egikaritza ahalbidetzen eta errazten dutela, bai eta Garapen Jasangarrirako Helburuak eta 2030 Agenda lortzen aurrera egitea ere. Alabaina, eskubide hori ez dute berdintasunez baliatzen pertsona, lurralde eta herrialde guztiekin. Gizarteko eragile bakoitzak aukera berberak izan beharko lituzke ahotsa altxatzeko eta komunikabide masiboen edo orotariko kultura-adierazpenen bidez entzunarazteko, baina hori ez da horrela gertatzen, komunikabide handien gainean gauzatzen den kontrola dela eta.

Urtero bezala, dinamika hori apurtzen laguntzeko eta **kontzientzia sozial kritiko eta eraldatzalea duten herritarra**k sustatzeko sortu da «Film Sozialak» jaialdiaren 14. edizioa. Horretarako, zinema gizarte-eraldaketarako komunikazio-tresna gisa agertzen da, gizartean eta askotariko pertsonetan eragiteko duen gaitasunagatik.

Zinemak gure denboraren zati handi bat hartzen du, milioika pertsonak eskura dezaketen zer-bait da; indar soziokultural izugarria du, bai eta pertsonen bizitzetan eragiteko gaitasuna ere. Zinemak beti izan du entretenimendurako bokazio berezia, baina hori baino gehiago ere bada. Zinema sozialaren bidez, askotariko hizkuntzak bistaratzen dira, gauzak ulertzeko eta egiteko bestelako moduak azaleratzen; kultura eta hausnarketa ipintzen ditu gure eskura, eta jarrerak eta ohiturak alda ditzake. Lagungarri izan dakigu ke arazoen eta haien balizko soluzioen berri izateko, ezagutzen ez ditugun munduak deskubritzeko eta enpatia pizteko.

2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuen babespean, Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak **emakumeak, gizonak eta gizarte-kolektiboak indartzea du helburu, Euskadin gizartea eraldatzeko agente gisa**, Iparraldearen eta Hegoalde Globalaren arteko errealtitate desberdinak eta elkarrekin lotuak kontuan hartuta.

KCD GGKEren ibilbideari eutsiz, «Film Sozialak» Euskal Autonomia Erkidegoan, estatuan eta nazioartean indarrean dagoen arau-esparruan gauzatzen da, guzta ere KCD GGKEren estrategia instituzionalarekin, (H)abian 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiarekin eta lankidetzari buruzko indarreko euskal legearekin bat etorriz.

## ***Publikoaren ibilbidea***

Pandemiaren ondoren, Euskadiko zinema-aretoek galdu egin dute ikusleen parte handi bat. Euskadiko Zinema Aretoen Elkarteak (EZAEk, zinema-areto pribatuak barnean hartzen dituenak), emandako datuen arabera, lurrealde osoan pandemia aurreko publikoaren % 43 galdu dela kalkulatzen da.

Euskadiko zinema-aretoetako ikusleen beherakada orokorra gorabehera, arrakastatsutzat jo daiteke 2022ko azken edizioa. 2022an zehar, 11.846 lagun izan dira aurrez aurre saioetan, eta horiei gehitu behar zaizkie *Klikatu Zinema Ikusezina* plataformaren bidez palmareseko filmak online ikusi dituzten 635 pertsona gehiago. Guztira, **zinema-jaialdiak 12.481 ikus-entzule izan ditu, % 58 emakumeak.** Azpimarratzekoak dira **Golem zinema-aretoetako saioak, 2019koen ia kopuru berdinak berreskuratu baitituze** (pandemia aurrekoak).

14 ediziootan, **zinema-jaialdiak 109.000 pertsona baino gehiago erakarri ditu guztira (% 55 emakumeak).**



Jaialdia eta "Ekintzaileak" erakusketa Bilboko hainbat kaletan zabaltzea

Zinema Ikusezinak oso argi dauka filmak erreminta pedagogiko biziki indartsuak izan daitzkeela, eta horregatik egin du KCD GGKEk zinema-jaialdi hori ikastetxeetan sartzeko apustua: **ikusleen ia % 80 batxilergoko eta lanbide-heziketako ikastetxeetako ikasleak eta irakasleak dira.**

2022ko edizioaren amaieran, **15 ikastetxek hartu** dute parte zinema-jaialdian, eta **9.235 ikaslekin** lan egitea lortu da (% 55 emakumeak). Nabarmentzekoa da, gainera, **ikastetxe horietako 568 irakasleren lagunza** izan dela kopuru horiek lortzeko. Irakasle horiek, besteak beste, saioak dinamizatu dituzte, ekintza eta jarduera paraleloak prestatu dituzte... Azken buruan, haien arduratzan dira zinema-jaialdiari etekin osoa ateratzeaz.



### 2022ko obren hautaketa

Batxilergoko eta lanbide-heziketako ikasleek (Ikasleen Klaketa tailerrek) egindako **65 lan programatu dira lehiaketarako eta beste 7 lehiaketatik kanpo**. Ikastetxeek oso positibotzat jo dute elementu hori.

**Jasotako obren % 33 emakumeek zuzendu dituzte —bakarrik edo lankidetzan—**, baina, programazioari begiratuta, ehuneko hori **hautatutako obren % 44ra eta emanaldien % 50era iristen da**.

Zinema-jaialdiaren alderdi garrantzitsuenetako bat **aniztasuna** da, hainbat adierazleren bidez neurten dena:

- Azken hautaketan, **orotara 37 herrialde edo lurralte daude ordezkatuta**.
- **5 filmek**, guztizkoaren % 7k, **Afrikako herrialdeak ordezkatu dituzte**, eta **35 saiotan** proiektatu dira, guztizkoaren % 27tan. *Obra horien hautaketan, Senegalgo Hahatay Son Risas de Gandler GGKEa laguntzaile izan da.*
- **Zinema indigena komunitarioari dagozkio 5 film**, Oaxacako Zinema Komunitarioaren Jaialdiarekin izaniko lankidetzari esker.
- **Euskarazko 7 lan** aukeratu dira (% 10), baina horietatik 3 lehiaketatik kanpo eman dira. Guztira, 53 saiok gutxienez euskarazko film bat izan dute, hau da, saio guztien % 44k.
- Hautatutako lanen **% 65ek azpitituluak** izan dituzte (kopuru hori % 80koa da azpititulu partziala duten lanak kontuan hartzen baditugu), eta horrek pelikulen nazioartekotzea adierazten du, eta gorren ulermenaren errazten.

KCD GGKEk euskarazko zinema soziala sustatzen du. Hori dela eta, Zinema Ikusezinaren 2022ko edizioan bermatu dugu euskarazko filmen proiekzio-ehunekoa handiagoa izatea hizkuntza honretan jasotako filmen ehunekoa baino.

### **Ekitatearen aldeko apustua**

KCD GGKEk ekitatearen aldeko apustu irmoa egiten du, errealtitatearen azterketa eta plangintza estrategikoa kontuan hartuta.

Apustu horrek inpaktu zuzena du filmen hautaketan eta proiekzioan. Hala, **bi kasuetan, emakumeek zuzendutako lanak % 40-45era iristen dira**. Bestalde, emakume zinemagileen presen-tzia parekidea izan da Bilboko cinema-jaialdian.

Ekitatearen aldeko apustu horretan, bada erabakigarria den beste faktore bat: emakume zinemagileen berariazko aintzatespena. Ildo horretan, gainera, **kategoria espezifiko bat dago, genero-ekitatearen ikuspegi onena duten lanak saritzen dituena**.


Era berean, **gaika antolatutako epaimahaikide-hirukoteak mantendu dira, kategoria bakotzeko 2 emakumez eta gizon 1ez osaturik**. Estrategia horren ondorioz, 2022an emakumeek protagonismo argia izan dute palmaresean: **emakumeek —bakarrik edo lankidetzan— zuzendutako filmentzat izan dira azken edizioko 11 sarietatik 8**.

Azkenik, kontziliazioa errazteko, Zinema Ikusezina **aitzindaria izan da haurtzaindegি-zerbitzua jartzen** Bilboko egoitza nagusira joaten diren **zinemagileentzat eta genero guztietako publi-koarentzat**.




Toño Pérezén "Camila Hunck" filmeko aktoreetako batzuk, 2022ko Bilboko14. FICI ren inaugurazio-ekitaldian

### **Jasotako obrak eta emakumeek egindakoak 2010-2022**



### Hautatutako obrak 2010-2022



#### **Zinema sozialaren ekoizpena eta hedapena bultzatzea**

Filmei eta obretan nabarmentzen diren gaiei ikusgarritasun eta ibilbide handiagoa emateko, zinema-jaialdiak 11 sari berezi ematen ditu hainbat kategoriatan. Sariak berezkoa duen prestigioaz eta publikoaren errekonozimendua gainera, **2022an guztira 19.500 euro eman dira sari-tan**, hainbat erakunde publikoren eta pribaturen laguntzari esker.


#### **JAIALDIKO 11 SARIAK**

1. Jasangarritasuna
2. Giza eskubideak
3. Emakume batek egindako obrarik onena
4. Genero-ekitatea
5. Kulturartekotasuna
6. Balioetan oinarritutako hezkuntza
7. Publikoaren saria
8. Euskaraz egindako obrarik onena
9. Zinema Ikusezina
10. Ikusezina Express
11. Publikoaren Ikusezina Express saria



Aba Taano taldearen emanaldia, 2022ko Bilboko14. FICIren amaierako ekitaldian

Jarraian ikus daitekeenez, **emakumeei eman zaizkie zinema-jaialdiko sarien eta aipamenen erdiak baino gehiago**, eta, hartara, eutsi egia zaio emakume zinemagileei laguntzeko konpromisoari. Zinema-jaialdiak genero-ekitatearen alde hartu dituen neurriei esker, emakume sarituek egindako lanen batezbestekoak askoz handiagoa izan da sektorekoak baino.



Zinema-jaialdiari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/cine-invisible-13edicion?lang=eu>

## ERAKUSKETAK

### Gure tokiaaren bila

*Gure tokiaaren bila* erakusketa argazkiz eta dokumentuz osatua da, eta emakumeek Kubako herriartasunaren eta nazioaren eraikuntzan egindako ekarpenea jorratzen dute guztiek ere. Bilbon inauguratu zen 2019an, «Film Sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdiaren 10. edizioan.

Erakusketa forma ematen dioten dokumentu gehienak Kubako Julio César González Pagés doktorearen artxibo historikoaren parte dira. Erakusketa osatzen duten materialak Marilyn Solaya zinema-zuzendari kubatarra 2019an eginiko *Gure tokiaaren bila / En busca de un espacio* dokumentalaren parte izan ziren. Solayak berak zuzendu zuen erakusketa ere, zeinak Neida Peñalver aditua izan baitzuen komisario —kubatarra hura ere—.

Erakusketa Bilbon inprimatu zen, eta orain erakusketa ibiltaria da Kuban. Kubako mugimendu feministaren historia, emantzipazio-prozesua eta ekitatearen aldeko borroka bistaratzen ditu irudi argitaragabeen bidez. Era berean, uharte hartako emakumeak protagonista izan zituzten gertaera garrantzitsuak jasotzen ditu, baita XX. mendearren hasieran Spainiako estatutik Kuba aldera egin zuten emakumeen kultura-ondarearen lekukotza grafikoak ere.

Marilyn Solaya zinemagile kubatarra urteak daramatza lanean **fikziozko film bat egiteko, Gure tokiaaren bila proiektua oinarri harturik**.

2022an, erakusketa eta dokumentala Kubako hainbat lekutan egon dira ikusgai, hala nola Espainiako Kultura Sailaren Habanako Galerian, Habanako Unibertsitateko Kimika Fakultatean eta Pinar del Ríoko eta Matanzasko Historialariaren Bulegoetan.

## LUMINISZENTEAK

**Igone Mariezkurrena Fernandez** kazetariak eta **Irantzu Pastor Ordoki** argazkilariak egindako lan bikain honen berri izan bezain pronto, KCD GGKEk inolako zalantzak gabe erabaki zuen babestea.

KCD GGKEren ustean, oso garrantzitsua da **hainbat emakumeren testigantzen eta irudien erregistro hori**, zeinetan arazo berbera partekatzen baita: **gizonak nagusi diren sistemek pean bizi zearen ondorio negatiboak**.

**LUMINISZENTEAK** erakusketa eta liburua 2021ean inauguratu ziren, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren 13. Nazioarteko Jaialdiaren esparruan, baina 2022an ere hainbat tokitara iritsi da; esaterako, Andoainera, Erreenteriara, Arrasatera, Hernanira eta Lesakara. 2023an, beraz, Donostian ikusgai ipintzea dago aurreikusita.



Zabalgune eraikina, Bilbo. Igone Mariezkurrena kazetariaren eta Irantzu Pastor argazkilariaren "Luminiscentes" Erakusketaren aurkezpena

### ***Ekimena Senegalen***

2022an inauguratu zen, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren 14. Nazioarteko Zinema Jaialdian. Senegalgo Hahatay Son Risas de Gandiol GGKEak, KCD GGKEk eta Dakarren bizi den **Marta Moreiras** fotokazetari espanyiarak elkarrekin egindako erakusketa da, zati bat Saint-Louiseko (Senegal) Massow Ka argazkilariaren irudiek osatzen badute ere.

Erakusketa hainbat formatutan dago osaturik, guztiak ere obrak ikusgai dauden espazioei lotuta, eta ***Ekimena Senegalen*** da haien guztiak lotzen dituen gaia.

Gai hori harturik, bi argazki-sorta batu dira, bi kolaborazio bereiziren emaitza gisa:

Alde batetik, gaur egun beren komunitatea eta etorkizuna eraikitzen ari diren Gandioleko zenbait gazte daude ikusgai, batez ere emakumeak. **Tabax Nité** (gizatasuna eraikitza, woloferaz) espazioko kideak dira, Hahatayk 2020. urtetik Gaudiolen (Senegalgo iparraldean) abian jarritako esperimentazio-gune batekoak, alegia. Partaidetzako tailer baten emaitza izan dira irudiak: Marta Moreiras eta Ina Thiam argazkilarien lagunduta, eraikitzaileek beraiek dokumentatu dute beren lana.

Eta, beste aldetik, Saint-Louis hirian eta Senegalgo iparraldean dagoen Gandiol landa-komunitatean bizi diren gazte ekintzaileen erretratuak erakusten dira. Horietako bakoitzak proiektu pertsonal bat jarri du martxan, nork bere talentuak eta gaitasunak garatzeko eta, hala, lanbide-irteera bihurtzeko. Guztiak ere gai dira beren ingurunea irakurtzeko eta bizi diren testuinguruak hobetuko duten erantzunak bilatzeko. Hahatay Son Risas de Gandiol elkarteko lantaldeak koordinatuta, Massow Ka argazkilariak —«El Junior», arlo profesionalan— egin ditu argazkiak. Gainera, Saint Louisko gazte ekintzaileetako bat denez, bera ere ageri da erakusketan.

Marta Moreiras argazkilari eta kazetari galiziarrak izan da erakusketaren komisarioa, eta askotariko formatuak izan ditu:

- Bilboko Udalak 5 publizitate-kubo jarri ditu Bilboko kalerik jendetsuetan. Udalarekiko lankidetza horri esker, espazio publikoak erabiltzeko aukera izan dugu.

- Bilbao Ekintzarekin lankidetzen, 8 argazki-panel instalatu dira Bilboko Zabalgune eraiki-nean, Bilboko gazte ekintzaileei zuzendutako *coworking*-gune berria apaintzeko.
- Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdian 12 panel mugikor ezarri dira Alhondigan; ondoren, zinema-jaialdiarekin bat eginiko ikastetxeetan zehar bidaiatzen jarraitu dute, zentrootan erabiltzeko eta gozatzeko.
- Bilboko bi geltoki jendetzenetako tuneletan —Abandokoan eta Moyuakoan— 13 panel instalatu dira zinema-jaialdiaren garaian.
- Azkenik, Saint-Louis hirian bizi diren gazte ekintzaileen erretratuen neurri handiko 8 panel egon dira ikusgai azarotik abendura bitartean Habanako [Kuba] Casa de África zentroan, KCD GGKEren eta Kubako Habana Hiriko Historialariaren Bulegoaren arteko lankidetzari esker.



“Ekintzaileta Senegalean” erakusketaaren inaugurazioa, Bilborock Aretoan

Erakusketa buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/exposiciones?lang=eu>

## KULTURARI, KOMUNIKAZIOARI ETA GARAPENARI BURUZKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

2022ko ediziorako topaketa KCD GGKEren lanaren parte transbertsala da, eta, beraz, haren lehentasun estrategikoei erantzuten die. Garapen jasangarrian oinarritutako ikuspegitik diseinatu da, 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuen esparruan eta eraldaketarako komunikazio tresna izateko kontzepzioa baliaturik.

Munduko hainbat lekutatik datozen erakundeen trukerako, hausnarketarako eta partaidetza bidezko eraikuntzarako aukerak ematen du topaketen aberastasuna. Topaketa horretan, berriz ere, **KCD GGKEk Hegoalde Globaleko hainbat herrialdetan lankide dituen erakunde batzuek parte hartu dute**. Hori abantailatzat jotzen du KCD GGKEk, Hegoalde Globaleko hainbat tokitako esperimentzien eta jakintzen aukera aberatsa eskain baitaiteke.

Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari Buruzko Nazioarteko Topaketak zuzenean hausten du Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko dikotomia; izan ere, elkarrizketa horizontala ahalbidezten du gizarte-eraldaketarako tokiko eta nazioarteko hezkuntza-eragileen artean, eta amaitu egiten ditu, orobat, ohiko gizarte-botereen harremanak, zeinen arabera «Iparraldeak ematen



Kultura, Komunikazio eta Garapenaren 13. Topaketaren inaugurazioa

baitio jakintza Hegoaldeari». KCD GGKEren kontrako alderdi historikoetako aktibista eta profesional ugari joaten dira topaketa horietara; urtero-urtero, jakintzak partekatzeko kanal bat eratzen da, eta elkarrekin lantzen dira kulturaren eta komunikazioaren lan-esparruei eragiten dieten gaiak.

Jarduera horien helburuen artean ageri dira, besteak beste, **prestakuntza eta jakintza zabal-tzea, esperientziak eta trebetasunak trukatzea** eta **lankidetza-sareak sortzea** garapenerako lankidetza eraldatzen duten tokiko, nazioko eta nazioarteko eragileen artean. Baina helburuon artean badago, era berean, **beste gizarte-eragile batzuen parte-hartzea sustatzea**, herritar globalak lortzeko alternatibak sortzen lagun dezaten. Eta, jakina, aipatzeko da topaketa horien publiko orokorra ere; izan ere, topaketa horiek irauten duten 3 egunetan, gizartea eraldatzeko informazioa eta jakintza eskuratzeko dute. Eta horixe izan liteke etorkizuneko ekintza eraldatzai-leak sortzeko beharrezko oinarria, dela kolektibo gisa, dela modu indibidualean harturik.

2022an, Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari buruzko 13. Nazioarteko Topaketarako aukeratutako gaia honako hau izan zen: «**Baterako sorkuntza eta gizarte-berrikuntza garapen jasangarrian eta 2030 Agendaren helburuetan aurrera egiteko»**. Afrikako eta Latinoamerikako esperientziak baliatu ziren, batez ere El Salvador, Mexiko, Kolonbia, Kuba eta Senegal jatorri zituztenak. Gainera, Euskadi oinarri eta gidaritza duten prozesuak ere bildu ziren.

Zehazkiago, 2022rako programatutako topaketak ardatz tematiko gisa izan zituen komunikazioa —gizarte-eraldaketarako tresna gisa—, ekonomia sozial eta solidarioa —garapenerako eta ongizaterako aukera gisa—, eta aliantzak sortzea eta horietan parte hartzea —arazo globalei tokiko soluzioak bilatzeko—.

KCD GGKEk, hartara, **eutsi egin zion 2030 Agendaren aldeko apustuari, Garapen Jasangarri-rako 17 Helburuei ekarpenea egiten jarraitzeko modu gisa**, gizarte-eraldaketarako komunikazioko kultura-prozesuak sustatzeak helburu horiek betetzeari begira ematen dituen aukerez baliatuta.

Topaketa hori aurrez aurre egin zen, baina online ere jarraitu ahal izan zen. Guztira **141 pertsonak parte hartu zuten, eta % 84 emakumeak izan ziren**. Horietatik guztietatik, 47 lagunek esku hartu zuten aurrez aurre, eta % 66k online, Zoom plataformaren bidez. Gehienak espainiarak ziren, baina izan zen Boliviako edo Argentinako parte-hartzailerik ere.

Topaketari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/encuentro?lang=eu>

## EMAKUMEEK EGINDAKO ZINEMA-KARABANA



Silvia Voser-ekiko foroa, Emakumezkoek egindako 11. Zinemako Karabanan

Bilbon 10 urtez «Zinemagileen artean» emakumeen zinema-karabana egin ondoren, Amal Ramsis zinemagile egiptoarrak 2008an abian jarritako zinema-erakusketa ibiltariaren 11. edizioa izan da 2022an. KCD GGKEk hasieratik babestu du ekimen hori, **bat egiten baitu kultura arabiarraren eta beste kultura batzuen arteko elkarlanean sortzeko, zinemagintza sozialen dihardutenean emakume zuzendarien lanak ikusarazteko eta zinemagileon arteko lankidezta-sareak sortzeko helburuekin.**

Emakumeek egindako 2022ko zinema-karabana maiatzaren 23tik 27ra izan da. Pandemiak astinduriko bi urteren ostean, normaltasuna itzuli da atzera nazioarteko bidaietara, eta hautatutako film luzeetako lau zuzendari izan dira karabanan —Egiptotik, Guatemalatik, Stockholmietik eta Tolosatik etorriak—.

Karabanaren iazko edizioak elementu berritzaile bat izan du: emakumeek egindako 5 filmen proiekzioarekin batera 4 film labur eman dira (legunean bat), guztiak ere Amal Ramsis zinemagileak Kairon emaniko **Sorkuntza Dokumentalen Tailerrean** landuak. Era berean, tailer horretan parte hartu duten emakumeetako bat Bilbon izan da, eta bertaratutako pertsonekin partekatu du Egipton KCD GGKEren elkarlanari esker antolatutako tailer horretan izaniko esperientzia eta eskuratutako jakintza.

Guztira **284 lagun izan dira (% 79 emakumeak)**. Karabanak zinema komertzialaren alternatiba gisa jarraitzen du, eta emakumeen ikuspegia jasotzen duten bestelako proposamenetara hurbiltzeko aukera bat da.

Karabanari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/caravana?lang=eu>

## IKASLEEN KLAKETA: GIZARTE ERA DALAKETARAKO KOMUNIKAZIO TAILERRA

Ikasleen Klaketa da KCD GGKErekin lankidetzen dihardutenean **ikastetxeekin harreman jarraitua izatea** ahalbidetzen duen jardueretako bat. Tailerraren helburu nagusia zera da: ikasleek egunero aurkezten zaizkien mezuetan erabilitako komunikazio-estrategiak identifikatzen ikastea, bai eta komunikazio-tresna horiek bereganatzea ere, ikuspegi etikoarekin eta gizarte-eraldaketaren ikuspegitik transmititu ahal izan ditzaten meuak. Gero eta nabariagoa da tailerrean antolaturiko jardueren hartzaileek (batxilergoko eta lanbide-heziketako ikasleak) modu intuiti-

boan erabiltzen dituztela komunikazio-tresna ugari. Alabaina, horrek ez du esan nahi belaunaldi natibo digital horrek hausnartu duenik teknologia horien erabilera arduratsu eta etikoari buruz.

KCD GGKEren zeregin nagusia ikus-entzunezko komunikazioari buruzko prestakuntza teoriko-praktikoa ematea da. Trebakuntza-saio horietan, komunikazio-adibideak baliatzen dira giza eskubideei, jasangarritasunari, genero-ekitareni edo kulturartekotasunari lotutako gai sozialak lantzeko. Tresna horren erabilera arduratsuaz ahaldundu ahala, ikasleek gai sozial jakin bat aukeratu behar dute, eta horri buruz hausnartu, iritzi informatua sortzeko eta, hartara, mezu propioa izateko. Hau da, **ikasleek berek egiten dute kontakizuna eta haien intereseko gai bat lantzen dute, tokiko edo globala.**




Ildo horretan, ikastetxeetako irakasleek biziki balioetsi dute **talde-lana egiteko benetako aurkera**. Ikasleek beren produkzio-ekipoa aukeratzen dute, grabazio-saioak antolatzen dituzte, edukia editatzen dute eta ikasgelako gainerako taldeei aurkezten die. Aurkezpenaren parte gisa, taldeak eztaba batean parte hartzen du, ikasgelako gainerako kideekin aukeratutako gai bati buruz. Saiootan, gai horri buruz sortutako hausnarketak partekatzen dituzte, eta gainerako ikasleak modu kritikoan esku hartzera animatzen dituzte. Gutxi gorabeherako epeak ezartzen badira ere eta talde bakoitzaren beharretara egokitzen den etengabeko lagunzia errazten den arren, **erabakiak hartzea eta ikasleen egokitzeko gaitasuna sustatzen dira**. Azkenik, lana artxibatuta geratzen da zentroan bertan eta, kasu batzuetan, KCD GGKEren Klikatu Zinema Ikus-zina plataforma ipintzen da ikusgai.



Ikasleen Klaketa tailer batean grabatzen ari diren ikasleak

2021-2022 ikasturtean, **17 tailer egin dira —9 euskaraz eta 8 gaztelaniaz—**, udalerri eta ikastetxe hauetan: CIFP Elorrieta Erreka Mari LHII (Bilbao), IES Ibarrekolanda BHI (Bilbao), IES Artaza-Romo BHI (Leioa), IES Saturnino de la Peña BHI (Sestao), CIFP Nicolás Larburu LHII (Barakaldo), FPB Bituritxa OLH (Barakaldo), IES Mungia BHI (Mungia), CIFP Iurreta LHII (Iurreta) eta IES Aixerrota BHI (Getxo).

**286 pertsonak parte hartu dute (% 57 emakumeak) eta 51 film labur ekoitzi dira (horietatik 18 euskaraz)**, hainbat gizarte-gai oinarri hartuta, hala nola sare sozialen arriskua, *bullyinga*, alkoholismoa eta droga-mendekotasunak, osasun mentala, gizarte-bazterkeria, dibertsitate funtzionala, LGTFobia, eutanasia, indarkeria matxista, dibertsitate funtzionala, harreman toxikoak, COVID-19a eta beste hainbat, betiere parte-hartzaleen ikuspuntutik.

**Egindako film laburrak****Ikasleen Klaketa 2022ko parte-hartzaileak****Egindako tailerrak**

Azpimarratzeko da **lan horietako 7 lehiaketatik kanpo erakutsi direla Bilboko 2022ko Zinema Ikusezinaren 14. Nazioarteko Jaialdian**. Lan horiek zinema-jaialdiarekin bat egin duten institutu-tuetako saioen artean programatu dira, eta haietako lan batekin abiarazi dituzte saioak.

Ikasleen Klaketa tailerrei buruzko informazio gehiago:  
<https://www.kcd-ongd.org/ikasleen-klaketa-info?lang=eu>

## **EMAKUMEENTZAKO BIDEO-TAILER PARTIZIPATIBOA**

Ikusirik begi-bistakoa dela genero-desberdinkeria, Kultura Communication Desarrollo —KCD ONGD— erakundeak hainbat gune jarri ditu abian **ikus-entzunezko komunikazioaren esparruan emakumeen ahalduntzea indartzeko**.

Beste edizio batzuetan, ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalak ez diren emakumeei zuzen-dua izan da tailer hori, baina 2022an, **Marilyn Solaya zinemagile kubatarra** Bilbon zela, tailer bat ematea erabaki da, ikus-entzunezko komunikazio eta Bilboko zinema-unibertsitateetako ikasleei zuzendurik.

Tailerrean pelikula bat sortzeko prozesua aztertu dute, eta *Vestido de novia* (2014) fikzioaren sorkuntzaren analisi erreala egin dute *En el cuerpo equivocado* (2010) dokumentalik abiatuta. Lan-metodo hori arte eszenikoetan hasi zenetik garatzen du Marilyn Solaya zuzendari kubatarrak.

Azkenik, **10 emakumek parte hartu dute**, eta hauek izan dira **Dokumentalik fikziozko film luzera** tailerraren helburuak:

- Bertatik bertara ezagutzea nazioarteko profila duen emakume zinemagile baten lana.
- Ikus-entzunezko proposamen baten sormen-prozesuaren ikuspegi orokorra eskaintza, sorkuntzatik hasi eta banaketaraino.
- Parte hartzen duten emakumeen artean konfiantzazko espazio bat sortzea, emakume zinemagileen artean pentsamendu kolektiboa aztertzeko, eztabaidatzeko eta indartzeko.

- Emakume zinemagileei tresna berriak eskaintza, haien ahalduntze profesional eta soziala indartzeko.
- Komunikazioaren ahalmen eraldatzailea garatu ahal izateko beharrezko hainbat kontzepturi buruz hausnartzea.



"Dokumental fikziozko film luzera" tailerra, Marilyn Solayak emana

Tailerrari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/escuela-kcd?lang=eu>

## KCD GGKE-REN ARGITALPENAK

2022ko argitalpena bat dator Mamadou Dia idazle, ekintzaile eta panafrikanistak idatzitako **3052. Persiguiendo un sueño liburuaren 10. urteurrenarekin.**

2012an argitaratu zuen lehenbiziko liburua: lehen pertsonan idatzitako kontakizun bat. Dia bera da argitalpen horretako protagonista, eta gordintasun osoz kontatzen du kaiukoz Kanarietara eginiko bidaia, baita **Espainiako ametsa** lortzeko abenturaren lehen urteak ere, zeinak ez baitziren izan amestu bezalakoak. Espainiako estatuan 7 urte eman ondoren, Gandiol (Senegal) sorterrira itzultzea erabaki zuen, eta Hahatay Son Risas de Gandiol elkartea sortu zuen. Han, Afrikako autorrealizazio komunitarioan lan egiten du, Senegalen errroturik. Duela 5 urtetik hona, **Hahatay elkarrekaek autorrealizazio komunitarioko laborategi bat hasi du Gandiol herrian.** 10 sektore erabakigarritatik abiatuta, aurkitutako problematika edo erronka desberdinatarako erantzunak proposatu dituzte. **Kultura eta komunikazioa daude sare horren erdigunean**, eta ezinbesteko lotura sortzen dute iruditeriarekin eta bestelako etorkizun oparoagoak amesteko gaitasunarekin.


Ikuspegi horren eta lana bideratzeko moduaren ondorioz, KCD GGKEk egiten duen garapenerako lankidetzako lanaren erakunde aliatu nagusietako bat bilakatu da Hahatay. Zehazki, 2017az gerotzik, bi erakundeak orpoz orpoz ari dira elkarrekin lanean Ganiolen, komunitatea bera buru duen garapen komunitarioko prozesu batean laguntzeko.

KCD GGKEren ustez, Hahatay bazkide estrategikoa da; izan ere, biek ala biek partekatzen dituzte zenbait kezka, hala nola bestelako garapenerako lankidetza egitea, eraldatzailea eta ahalik eta eragile gehien inplikatzea lortzen duena.

Argitalpenaren hamargarren urteurrenarekin bat etorri, **Itziar Larrinaga irakasle eta artisau ekintzaileak euskaratu du liburua** —Art Izar ezizenarekin—, eta KCD GGKEk haren berrargitalpena babestea erabaki du, euskal herriaren artean kontakizun baliotsu hori zabaldu ahal izateko, zeinean xehe-xehe kontatzen baitira migratzaileek jasaten dituzten giza eskubideen

urraketak eta behartutako migrazioaren ordez jatorrizko lekuaren alternatiba komunitario bat eraikitzearen garrantzia.

Lana bi hizkuntzetan banatu da Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren 14. edizioko parte-hartzaileen artean, bai eta euskarari lotutako hainbat kultura-gunean eta KCD GGKEkin lankidetzen aritzen diren ikastetxeetan ere. Era berean, Portugaleteko Udalak 2017an egindako gida didaktiko bat dago liburuarekin batera, eta orain KCD GGKEk eta Hahatay Son Risas de Gandiolek berrikusi eta egunera egin du.



Mamadou Diaren "3052" liburuaren sinadura, 2022ko Bilboko 14.FICI Amaiera Ekitaldiaren aurrekoan

KCD GGKEren argitalpen guztiak: <https://www.kcd-ongd.org/publicaciones-propias?lang=eu>

### **KLIKATU ZINEMA IKUSEZINA STREAMING PLATAFORMA**

Zinemak erakarpen gaitasun handia du, eta horrek tresna ahaltsu bilakatzen du hezkuntza arautuan zein arautu gabean baliatzeko; hori horrela, aukera ugari eskaintzen ditu. Ildo horretan, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia ikastetxeen aliatu bihurtu da. **Zinema sozialaren bidez, irakasleek eta ikasleek filmak baliatzen dituzte gogoeta egiteko, gai jakin batekin sentsibilizatzeko eta gai konplexuak aztertzeko.**

Hori dela eta, KCD GGKEk eta zinema-jaialdiak ahalegin nabarmena egiten dute lanbide-heziketako eta batxilergoko zenbait ikastetxeri hezkuntza-lanean laguntzeko, guztia ere zinema soziala zabalduz. Horretarako, zinema-jaialdiaren programazioaz gainera, aipatzekoa da Klikatu Zinema Ikusezina izeneko *streaming* plataforma.

Ikaskuntza- eta jakintza-teknologien kontzeptuan oinarritutako **tresna pedagogiko** gisa sortua da plataforma, irakasleak eta ikasleak informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTen) erabilera arduratsuago eta informatiboago batera bideratu ahal izateko.

Klikatu Zinema Ikusezina *streaming* plataforman, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren edizioetan hautatutako **150 film** inguru eskaini dira 2022an, eta, hari esker, ikastetxeen esku geratzen dira ikasturte osoan. Gaur egungo **nazioarteko zinema sozialaren panoramika** eskaintzen da horrela, dokumentalaren, fikzioaren eta animazioaren genero cinematografikoetan; lanik gehienak film laburrak dira, eta plataforma ikastetxeen beharretara egokiturik dago.

Hautaketa horrek aukera ematen die ikastetxeei askotariko gaiak luze-zabal jorratzeko, hala nola jasangarritasuna, genero-ekitarea, kulturartekotasuna, giza eskubideak eta abar. Emanaldiak **tokian tokiko eta mundu zabaleko errealitateen arteko loturak** ikusarazten dituzte; horri esker, beste kultura batzuk eta bizitza ulertzeko bestelako moduak ezagutu ahal dituzte, eta, era berean, herritartasun globalaren erantzunkidetasuna sustatzen dute. Horretaz gainera, ekintzarako deia dira, gaur egun gizateriak aurrez aurre dituen erronkei erantzuteko.

Zinema-jaialdiarekin lotutako zentro bakoitzari erabiltzaile eta pasahitz bat ematen zaio, baita film bakoitzari buruzko informazioa biltzen duen katalogo bat ere, zeinean dagokion ardatz tematikoa eta filmarekin zerikusia duten Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) zehazten baitira, besteari beste.

Gaur egun, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiarekin lankidetzan diharduten lanbide-heziketako eta batxilergoko 15 zentroek soilik erabiltzen dute plataforma. Plataforma Euskadiko beste ikastetxe batzuetara zabaltzea da etorkizuneko erronka, eta bideragarritasun ekonomikoa bilatzea, jasangarritasuna ahalbidetzeko eta filmak zabaltzeko eskubideak ekonomikoki aitortzeko.

## TXOSTEN EKONOMIKOA

KCD GGKEk 2022an gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren arloan egindako jardueren honako erakunde hauen babesia jaso dute:

Erakundea	2022KO EGIKARITZEA
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia GLEA (2020-2022 aldiko proiektua. Guztira: 369.666,42 €)	228.840,51 €
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia GLEA, <i>Jaialdiko Garapen Iraunkorraren Saria barne.</i>	180.000,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) (2021eko Hezkuntza Proiektua eta 2022ko jarduerak). <i>Giza Eskubideen Saria barne.</i>	45.000,00 €
Bilboko Udalak (Hitzarmena). <i>Genero Ekitatearen Saria barne.</i>	19.000,00 €
Getxoko Udalak (Kontratazioa). <i>Euskara Saria barne.</i>	14.965,00 €
Barakaldoko Udalak. <i>Balioetan Oinarritutako Hezkuntza Saria barne.</i>	6.000,00 €
Mungiako Udalak (Kontratazioa). <i>Film Sozialak Saria barne.</i>	6.000,00 €
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. <i>Emakume batek egindako obrarik onenaren Saria barne.</i>	2.000,00 €
Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritza (Kontratazioa). <i>Kulturartekotasunaren Saria barne.</i>	2.000,00 €
Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua BAEO (Hitzarmena). <i>Ikusleen Saria barne.</i>	2.000,00 €
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. <i>Epaimahaiaren Ikusezina Express Saria eta Ikusleen Ikusezina Express Saria barne.</i>	1.500,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>507.305,51 €</b>

## 2023KO JARDUERAK

Aurreikusi denez, ondorengo proiektuek jarraitu egingo dute 2023an, inplikatutako hainbat era-kunderen eta pertsonaren babesarekin eta lankidetzarekin.

- Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko 15. Jaialdia, 2023, urriaren 19tik 26ra.
- Kultura, Komunikazio eta Garapenerako Nazioarteko 14. Topaketa, “Ondarea, ekonomia eta generoa, ikuspegi sozial eta artistikoarekin”, maiatzaren 22tik 24ra.
- Emakumeek egindako zinemaren 12. Karabana, «Zinemagileen artean», maiatzaren 22tik 26ra.
- «Ikasleen Klaketa» gizarte-eraldaketarako komunikazio-tailerra. Telefono mugikorrekin egiten da, eta Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 9 ikastetxetako ikasleei zuzenduta dago.
- Emakumeentzako bideo-tailer parte-hartzailea, apirilaren 17tik 21era, Itxaso Díaz Cabrera euskal zinemako zuzendariak zuzendua.
- Klikatu Zinema Ikusezina streaming-plataforma garatzea.
- “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren erakusketa, Kubako Obra Nagusiko Emakumearen Etxean, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunaren barruan.

### 3 | KANPOKO GARAPENERAKO LANKIDETZA-EKINTZAK

Munduan ez dira mugitzen plaka tektonikoak bakarrik; aitzitik, badira horiek bezain arriskutsuak edo are arriskutsuagoak diren beste zenbait mugimendu ere. Gaur egun, herrialdeak egoera multipolar batera daramatzan norgehiagoka handia ari da sortzen, eta horrek konfrontazio handia eta hainbat talka eragin ditzake. Amerikako Estatu Batuak, Txina, Errusia, Europar Batasuna, India edo Turkia, besteak beste, toki bila ari dira munduan, eta harreman estrategikoak nahi dituzte Hegoalde Globalean.

Horren ondorioz, gora egin dute munduko gastu militarrak, armen merkataritzak eta berramatze nuklearrak; munduko ekonomiak aurrekaririk gabeko inflazioa izan du; eta garestitu egin dira, orobat, elikagai nagusien prezioak. Ondorioz, okerrera egin dute etxe askotako bizi-balintzek, bai Hegoalde Globaleko etxeetan, bai Iparraldekoetan. Eta, bereziki, gosete oso larriak sortzen ari dira munduko toki pobretuenetako batzuetan.

Egoera horretan, gatazka asko, klima-aldaketa, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkezia, bazterkeriak eta bizirauteko etengabe moldatu beharra dira nagusi, baita, horien ondorioz, desplazamendu ugari ere. Bien bitartean, herrialde aberatsek —kasu askotan, beraiek eragiten dituzte Hegoalde Globaleko arazoak— gehiago gotortzen dituzte mugak eta hesi-herrialdeak ahalbidetzen dituzte, jakinik haietan giza eskubideen era guztietako urraketak jasaten dituztela migratzaileek.

Mundu-joko handi horretan, Hegoalde Globaleko herrialde batzuek inoren alde ez egitea aukeratuko dute; beste batzuetan sentimendu antikolonialak eta antiimperialistak berpiztuko dira, batzuen edo besteen alde egitera behartuko dituztenak. Baina gerta daiteke, orobat, gerra gehiago sortzea, intentsitate baxukoak zein handikoak. Hori aurretik ere gertatu zen Gerra Hotzean, eta berriro ere pizteak giza kostu handiagoa eragingo luke, sufrimendu gehiago, eta suntsipena suntsipenaren gainean.

Konfrontazio handiko egoera hori geldiarazteko, mundu osoak inbertitu beharko luke goi-mailako diplomazian, eta, aldi berean, gehiago sustatu beharko litzateke garapen globalerako lankidetza. Bestalde, **gizarte zibilak indartzen jarraitu behar du guztion onerako ekintza ugariren protagonista izaten jarraitzeko.**

Kultura Communication yDesarrollo —KCD GGKE— erakundeak garapen-proiektuak egiten jarraituko du Senegalen, Kuban, Mexikon, Kolonbian, El Salvadorren eta Egipton dituen kontrako alderdiekin, garapenerako nazioarteko lankidetzari balioa emateko.



Senegalgo Ordezkaritza Kuban

KCD GGKEren apustua da, orobat, harremanak indartzea eta sareak sortzea garapenerako lankidetzaren eta eraldaketa sozialerako komunikazioaren eremuetan lan egiten duten erakundeen artean, guzta ere jakintzen transferentzia sortzeko.

Ildo horretan, Iparralde Globaleko GGKE-en eta erakunde publikoen inplikazio triangeluarrari esker, jakintzaren transferentzia tresna ona da Hegoalde-Hegoalde lankidetza sustatzeko. Ondo koordinaturik, lurralte-garapeneko prozesu integratuak eta partaidetzen oinarrituak sustatzen dituzten programa berritzaleak bultzada daitezke, Hegoaldeko eta Iparraldeko erakunde pribatu eta publikoak ez ezik, eragile publikoak, pribatuak eta gizarte zibilekoak ere inplikatuz.

Ildo horretan, bereziki nabarmentzen dugu KCD GGKEren, Habanako Historialariaren Bulegoaren (Kuba) eta Hahatay Son Risas de Gandiol GGKEaren (Senegal) artean egindako lana, kulturarekin eta ondarearekin lotutako esperientziak bateratu baitituzte Habanako (Kuba) hiri zaharrean eta Saint-Louis (Senegal) hirian.

<https://www.kcd-ongd.org/cooperacion?lang=eu>

## MEXIKO



### KOMUNIKAZIO KOMUNITARIOA SAREAN, ETA INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA JASANGARRIAK DEFENDATZEKO ETA BABESTEKO EKINTZA MEXIKON

Proiektu hori 2022an hasi zen, eta KCD GGKEk eta Oaxacako Ojo de Agua Comunicación Indígena elkartek duela hamarkada bat baino gehiagotik bultzatzen duten baterako garapen-prozesuari emaniko jarraipena da. Egitasmo horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) babesia jaso zuen 2012an eta, 2013tik aurrera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarena (GLEA) jasotzen du bi urtez behin eta modu egonkorrean (dagoeneko sei proiektu onartu ditu GLEAk).

**Komunikazio komunitario kontrahegemonikoa sustatzeko estrategia bat da**, indarkeriarik gabeko bizitza jasangarriak sustatzeko lan egiten du, eta arreta berezia ipintzen die emakumeen, defendatzaileen eta herri indigenen eskubideei. Erdialdeko Amerikako erakunde feministekin egindako aliantzak modu zehatzean gauzatzen dira proiektu honetan, eta **indarkeriekiko zero tolerantziaren kultura sustatzen da. Horretarako, antzerkia baliatzen dute sendatzeko metodologia gisa.**

Bistan geratu da **irratia komunitarioak** funtsezko eragileak direla, eta indartzen jarraituko dute komunitateak informatzeko, heztekoi, mobilizatzeko eta modu positiboan eraldatzeko, genero-ikuspegi argiarekin —eta gero eta handiagoarekin—, eta askotariko hizkuntzak, kulturak eta bizimoduak sustatuz.

Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziak 593.842,50 € ipini ditu, eta aurrekontua 744.709,53 €-koa izan da guztira.

## MEXIKO

### EMAKUME ETA HERRI INDIGENAK ZINEMA ETA IRRATI KOMUNITARIOAREN II. JAIALDIA SAREAN ERAKITZEN, BIZITZA JASANGARRIAK MEXIKOTIK ERDIALDEKO AMERIKARAINO ZAINTZEKO

2022an, aurreko osatzen duen proiektu hori onartu zen. Ikusezin bihurtutako eta isilarazitako kolektiboek (emakumeek, herri indigenek, haurrek, defendatzaileek, LGTBIQ+ pertsonek...) aurrez aurre dituzten mehatxuen eta interesen aurrean, haien bizitzak eta lurralteak zaintzeko begiradak eta ahotsak indartu, artikulatu eta/edo zabaldu nahi dira, komunikazio komunitarioko estrategia eta tresnetan oinarritura, Oaxacatik Mexikoko eta Erdialdeko Amerikako beste eskuadre batzuetara. Horretarako, jarduera hauek planteatzen dira:

- Ikus-entzunezko eta irratiko-komunikaziozko gaitasunak eta ekipamendua **indartzea**.
- Emakumeei **bultzada eta laguntza tekniko zehatzagoa ematea**, beren ikuspegia eman dezaten.
- Lanak zabaltzea eta informazio trukea **Zinema eta Irrati Komunitarioaren II. Jaialdian**.

Ekintza guztiak II. Zinema Jaialdiarekin loturik daude, zeina isildutako ahotsak eta begirada ikusezinak biderkatzeko plataforma bat baita. Horretarako, sare-lana egiten du hainbat gizarte-erakunderekin, **ikuspegi antirrazista, despatriarkalizatzaile eta dekolonizatzailea** oinarri hartuta. Kolektibo gutxitu horiek munduaren aurrean identitate askotariko eta baliotsuak dituzten eskubideen titular gisa ipini nahi dituzte.

Proiektu hori eta aurrekoia KCD GGKEk antolatzen duen «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiarekin artikulatzen dira, haren tresnarik berritzaileenaren bidez: Klikatu Zinema Ikusezina *streaming*-plataformaren bidez, alegia.

Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziak 599.575,62 € ipini ditu, eta aurrekontua 777.148,05 €-koa izan da guztira.



“El lugar que habitamos” Irrati eta Zinema komunitarioko 1. Jaialdiaren amaiera, Oaxakan (Mexiko)

## KOLONBIA



### SOLASKIDETZA DEFENDATZAILEEN, EMAKUMEEN ETA HERRI INDIGENEN ESKUBIDEEN ALDE LAN EGITEN DUTEN HAINBAT ERAKUN-DEREKIN

KCD GGKEk garapenaren eta giza eskubideen aldeko prozesuak babes-tu ditu Kolonbian 2015etik, herrialde horretan bazkide duen José Alvear Restrepo abokatu-taldearen (CCAJAR) eskutik. Erakunde horrek borroka egiten du zigorgabetasunaren aurka, lurrardearen defentsaren alde eta justizia sozialean oinarrituriko bakea eraikitzearen alde. Gaur egun, bi erakundeok ez dute baterako proiekturik, baina harremanak aurrera jarraitzen du. Ildo horretan, KCD GGKEko bi lagun (herrialdeko zuzendaria eta teknikari arduraduna) bisitan izan ziren 2022ko azaroan, harreman horretan sakontzeko.

Kolonbiako gobernu berriak herrialdearen garapenerako eta bake erreal, egonkor eta iraunkorra eraikitzeko piztu dituen aukeren aurrean, **KCD GGKEk berretsi egiten du Kolonbiako gizarte**

**zibilarekin duen konpromisoa**, eta Kolonbiako giza eskubideen aldeko erakundeekin ez ezik erakunde feministekin eta ekologistekin ere trukatu ditu ikuspegiak eta esperientziak, lankidezta zehatzak ekarriko dituzten sinergien bila.



KCD GGKE eta CCAJAR Estatu Krimenen Biktimen Mugimenduaren (MOVICE) egoitzan (Kolonbia)

## KUBA



### HABANA 500: GARAPEN, KOMUNIKAZIO ETA KULTURA INTEGRALA SUSTATZEKO SORMEN-ESPAZIOAK HABANAKO HIRIGUNE HISTORIKOAN

Ekimen hori 2022ko abenduan amaitu zen, eta Habanako Hirigune Historikoaren hiri-sarea eta sare sozioekonomikoa dinamizatzeko kultura-eragileak finkatzen eta artikulatzen lagundu du, guztia ere kultura, ekonomia eta ondarea elkarrekin garatuz. Bide horretan, bi kultura-zentro sortu eta abian jarri dituzte:

**Habana Espacios Creativos zentroa** eta **Titón y Mirtha etxe**. Bi zentro horiek sinergiak ezarri dituzte beren kultura-programazioen artean, **gazteen arte-sorkuntza bultzatzeko, sustatzeko eta laguntzeko**, eta, hala, lurraldeko sormen-ekonomia garatzen lagunduko dute.

2022an, Habana Espacios Creativos sorkuntza artistikoko fabrikak gazte sortzaile eta einkintaileei laguntzeko gune gisa jarraitu du. Horren erakusgarri izan dira, konparazio baterako, **zinema-eztabaida zikloak**, lurraldeko nerabeen eta gazteen ikus-entzunezko sorkuntza ezagutarazteko. Era berean, nabarmentzekoa da a+ Espacios Adolescentes zentroarekin batera antolatutako **sorkuntza-tailerrak**, zeinetan **askotariko arte-adierazpenak** lantzen baitituzte (largazkilaritza, ikus-entzunezko komunikazioa, diseinua, literatura eta abar), betiere nerabeei eta gazteei zuzendurik, prestakuntza-prozesu horien ondoriozko sorkuntzak eta ekoizpenak erakusketa-zikloen bidez zabalduz eta ikusaraziz. 2022an, sorkuntza-beken beste 2 modalitate garatu dira: kultura-kudeaketa eta ikus-entzunezko ekoizpena. Beka horien bidez, **aholkularitza eta laguntza ematen zaie 10 sortzaileri, haien kultura- eta sormen-produktuak garatzeko eta sustatzeko**.

Bestalde, Casa de Titón y Mirtha kultura-zentroak kultura-eskaintza zabala izan du 2022. urtean ere, eta **generoaren inguruko zinema-eztabaida saioak** antolatu ditu; ildorretan, **emakumeek egindako lanen emanaldiak, zinema komunitarioa eta zinemaren historiari eta kritika cinematografikoari buruzko hitzaldiak** izan dituzte, nerabe eta gazteei eta, oro har, komunitateko biztanleei zuzendurik. Hori horrela, **ekoizpen cinematografikoari buruzko ikaskuntza- eta truke-gune gisa finkatu da**, belaunaldien artekoa, eta lagungarria izan da komunitateko ehun soziokulturala dinamizatzeko eta biziberritzeko.

Azkenik, kultura-industrien eta sormen-ekonomiaren sustapena Habanan eta herrialdeko gainerako tokietan bultzatzeo xedez, ekonomia sortzaileen kontzepzioa txertatu dute **Kubako On-dare Hirien Sarean** proiektu horren bitartez, herrialdeko lurralte horietako bakoitzean sortzen diren garapen-prozesuak baliatuz. Horretarako, 2022an, Kubako ondare-hiri batzuen kultura- eta sormen-ekosistemari buruzko diagnostiko- eta ikerketa-prozesu bat garatu da (Matanzas, Cienfuegos eta Bayamo hirienetan, alegia), eta, horretaz gainera, tailer eta ekitaldi nazionalak ere egin dituzte, ondoren ikerketa horren emaitzak zabaltzea eta gizarteratzeko. Horiek guztiak baliagarriak izan dira sarea osatzen duten hirietako bakoitzak sormen-ekonomien auzia txerta dezan garapen integraleko planen estrategia-ildoen artean, kontuan harturik hiriek berek eza-gutzen dituztela ondoen haien lurralteko kultura- eta sormen-potenzialtasunak, baita indarguneak eta ahulguneak ere.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) finantzaketari esker gauzatu da proiektua, zeinak 599.699,52 €-ko ekarpena egin baitu, guztira 757.121,11 €-ko aurrekontutik.

## KUBA

### **HABANA ZAHARREKO KULTURA-GARAPENA SUSTATUZ: HEGOALDEKO HIRIEN ARTEKO TRUKEA ONDAREA BERRESKURATZEKO**

2022ko otsailean amaitu da ekimen hori egikaritzeko fasea, zeinaren barruan **Habana Zaharreko garapen soziokulturalen partaidetza komunitarioa indartzeko estrategia bat ezartzen lagundu baita**. Estrategia horren barruan, hitzartze- eta trebakuntza-guneen programa bat egin da, eta lurralteko proiektu soziokultural komunitario eta instituzionalak gidatzen eta kudeatzen dituzten pertsonek parte hartu dute, bai eta tokiko biztanleei zuzendutako ekintza soziokulturalak gauzatzen dituztenek ere.

2022ko lehen hilabeteetan, COVID-19aren ondoren, proiektuaren amaierako ekintzei heldu zaie berriro ere, zeinak komunitateko espazio publikoak dinamizatzera bideratuak baitira, hala nola kultura-jarduerak eta proiektu soziokultural komunitarioen aurkezpenak Habana Zaharreko herri kontseiluetan, eta, horri esker, proiektu horietako batzuek herriaren garapen soziokulturalerako egiten duten lana ikusarazi eta zabaldu ahal izan da, betiere arreta berezia ipinita emakumeek gidatutako ekimenetan.

Bilboko Udalak 69.962,61 €-ko finantzaketa eskaini dio proiektu horri.



La Habana Zaharrako egoera ahulean dauden emakumeentzako eskulan-tailerrak ixtea, Obra Píaren Etxea Museoa (Kuba)

## KUBA

### **HABANA ZAHARRAREN GARAPEN INTEGRALA SUSTATUZ, ONDAREAREN GOZAMENERAKO ETA BABESERAKO, GIZARTEA ERA DATZEKO KOMUNIKAZIO-TRESNEN BIDEZ**

Gauzatze-fasean dagoen ekimen horren bitartez, **Habana Hiria Kontserbatzeko Lehenetsitako Eremuko hiri- eta kultura-ingurunea hobetzen laguntzen ari da.** Horretarako, eskura dauden tresnak hedatzeko prozesu bat jarri da abian ondarea parte-hartzean oinarritutik zaintzeko eta kudeatzeko, Habanako Hirigune Historikoko tokiko agintariei eta biztanleei zuzendutako prestakuntza-prozesuen bidez. Saio horietan, ordenantzari, hiri-kontrolari eta eremuko ondare material eta ez-materialari buruzko gidalerroak ematen dira. Era berean, eraldaketa sozialerako komunikazioaren tresnak erabiliz, Habanako Historialariaren Bulegoak Habana Hiria Kontserbatzeko Lehenetsitako Eremuan garatzen dituen hiri-erregulazioei eta plangintzarako eta lurrarde-kudeaketarako tresna eta estrategiei buruzko **komunikazio-materialak eta -euskarriak ekoitzi eta zabaldu dira**, ondarea zaintzearekin lotutako beste gai batzuen artean (tolesgarriak, eskuorri solteak, infografiak, kartelak, eta abar).

2022an, Habana Zaharreko eraikin emblematicoetako bat zaharberritzen jarraitu da, **Conde Jaruco** jauregia, zeina **Kultura Garapen Komunitarioako Gunearen** egoitza bilakatuko baita. Haren helburua da komunitateak eta komunitatearentzat zuzendutako ondasun eta zerbitzu soziokulturalen parte-hartze bidezkoa eta artikulazioa sustatzea, eta protagonismo berezia ematea emakumeek gidatutako ekimenei. Horretarako, hitzartze- eta prestakuntza-guneak garatu dira, Habanako Historialariaren Bulegoaren, tokiko agintarien, artisten, ordezkarien eta Habana Zaharreko herri-kontseiluetako proiektu soziokulturaletako gizarte eragileen arteko aliantzak sendotzeko. Gune horiei esker, kultura-kudeaketarako proposamen eta eredu bidezkoagoak adostu dira, parte-hartzean gehiago oinarritutik. Aliantza horien ondorioz, **azune horietako proiektu soziokultural** batzuen aurkezpen artistikoak gauzatu dira, Habanako Historialariaren Bulegoak sortutako erakunde eta proposamen kulturalekin batera, Habana Zaharreko komunitateetako espazio publikoetan eta agertoki berriean. Horrek guztiak auzoetan ehun soziokulturala dinamizatzen lagundi du, proiektu horietan egiten den lana eta komunitatean duten eragina ikusaraziz eta sustatzu.

Azkenik, Kubako Historialariaren eta Ondare Hirien Kontserbatzailearen Bulego Sarearen komunikazio-gaitasunak indartzera bideratutako proiektuaren estrategiaren parte gisa, 2022an **sarearen komunikazio-estrategia lantzen** jardun da. Horretarako, hainbat tailer-jarduera egin dira, eta horietan sarea osatzen duten bulegoetako komunikazio-espezialistek parte hartu dute. Jarduera horiek ondarearen zabalkunderako estrategia lantzeko prozesuan murgilduta daude, partaidetzaren, zuzentasunaren, inklusioaren eta ingurumenaren ikuspegitik.

Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziak 597.469,85 €-ko finantzaketa eman dio ekimen horri, 751.396,47 €-ko guztizkotik.

## KUBA

### **HABANAKO ERDIGUNE HISTORIKOKO EMAKUMEEN GIZARTERATZE EKONOMIKO ETA SOZIALA SUSTATUZ**

Ekimen honen bidez, **lurradeko emakumeek baliabide ekonomikoak eskura izatea eta haien gaitasunak indartzea bultzatzen da**, emakumeon ahalduntze ekonomikoa eta autonomia sustatzeko bide gisa, Habana Zaharreko tokiko garapeneko bi proiekturi lotutako ekintzaileta-lanetan parte hartuz eta laneratuz (Erroeza haraindiko proiektua eta Arte Corte proiektua).

Horretarako, **prestakuntza-ekintzak** gauzatu dira 2022an, lanbideetan aurrera egitera bideratuak eta lurradeko emakumeentzat (bereziki emakume beltzentzat), kalteberatasun-egoeran

dauden emakumeentzat eta emakume ekintzaileentzat pentsatuak. Ekintza horiek **Erroeza Harraindiko proiektuaren** kudeatzaleek koordinatu eta gauzatu dituzte, bai eta PDL 999+ tokiko garapeneko erakundeko langileek ere —lurraldean ekintzailetzak eta proiektuak sortzeko aholkularitzan espezializatua da azken proiektu hori—. Prestakuntza horiei esker, parte hartzen duten emakumeek ezagutzak, tresnak eta gaitasunak areagotu dituzte, beren ekintzailetzak sortzeko eta abian jartzeko.

PDL 999+ erakundeko profesional-taldearen aholkularitza eta laguntza **funtsezkoa izan da tokiko garapeneko 5 proiektu berri sortzeko, eta prestakuntza-prozesuetan parte hartu duten lurraldeko emakume ekintzaile batzuk izan dituzte gidari**. Proiektu horiek dagoeneko onartu ditu Habanako Udal Administrazio Kontseiluak, eta martxan jartzen ari dira.

Azkenik, Edertasun Areto Inklusiboaren espazioa egokitzeko lanean ari dira. **Arte Corte proiektua** izango da areto horren buru, eta, lurraldeko emakumeen laneratzea bermatzeaz gainera, desgaitasunen bat duten pertsonentzako zerbitzu espezializatuak eskainiko ditu.

Proiektua Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Spainiako Agentziaren (AECID) finantzaketari esker gauzatzen ari da, zeinak 263.964 € bideratu baititu, guztira 284.108 €-ko aurrekontua duen proiektura.



Habana Zaharreko garapen lokaleko proiektuen emakume ekintzaileak eta kudeatzaleak gaitzeko tailerra (Kuba)

## KUBA

### HABANAKO ERDIGUNE HISTORIKOKO EMAKUMEEN GIZARTERATZE EKONOMIKO ETA SOZIALA SUSTATUZ

Proiektuaren helburua **emakumeak artatzeko laborategi psikodidaktiko bat** sortzea da, **Casa de la Obra Pía museoa**, zeina Habanako Historialariaren Bulegoko Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren barruan baitago. Habana Zaharreko lurraldean egoera kalteberan dauden emakumeen parte-hartza, trukea, sozializazioa eta indartzea ahalbidetu du espazio horrek. Museoko eta Habanako Historialariaren Bulegoko profesionalen taldeak, laborategiaren kudeaketa-talde gisa, laguntza eta prestakuntza eskaini dizkie, eta haien garapen pertsonala eta kulturala sustatu ditu, Casa de la Obra Pía zentroari lotutako historiarekin eta ondarearekin duen loturatik abiatuta.

Horretarako, laborategi psikodidaktikoko talde kudeatzailea trebatzeko prozesu bat egin da, kalteberatasun-egoeran dauden emakumeekin lan egiteko eta arreta emateko tresna teoriko-metodologikoak emateko. Horri esker, langile horiek espazioa sartzen diren emakumeentzako programa soziokultural egokia diseinatu eta implementatu ahal izan dute, haien berezasunak eta behar espezifikoak kontuan hartuta.

Ondoren, programa hori implementatzen hasi dira. Hori horrela, eskulanei buruzko tailerrak, sailetako espazioak, hezkuntza-hitzaldiak eta emakumeek egindako ikus-entzunezkoen zinema-eztabaidak sartzen dira, kalteberatasun-egoeran dauden emakumeei eragiten dieten gaiak eta problematikak aztertzeko, eta, aldi bieran, emakume errealizatzaleen zinema-sorkuntza zabaltzeko. Laborategiko programa soziokulturaleko ekintza horiei guztiei esker, **emakume horien prestakuntza bultzatu da**, kultura, berreskuratzea eta ondare-tradizioak babestea abiatapuntu harturik, eta haien autonomiarako, independentziarako eta ahalduntzerako tresnak eman zaizkie.

Proiektua Bilboko Udalaren finantzaketari esker gauzatzen ari da, 70.000 euroko aurrekontuarekin.



Habanako Zentro Historikoko espazio publikoetan proiektu soziokultural komunitarioak aurkeztea (Kuba)

## KUBA

### **HABANA ZAHARREKO ZENTRO HISTORIKOKO EMAKUMEEN GIZARTERATZE SOZIOKULTURALA SUSTATZEA, KULTURA-ONDAREAREN KUDEAKETAREN ETA ARRETA PSIKOSOZIALAREN BIDEZ, GENERO-IKUSPEGIAREKIN**

Emakumeen gizarteratze sozial, kultural eta ekonomikoan laguntzea da proiektu horren helburua, kultura-ondarearekiko lotura eta haien potentzialitateen garapena abiapuntu hartuta eta eskubideen eta genero-berdintasunaren ikuspegia baliatuta. Egitasmo horren parte gisa, 2022an **Habanako Historialariaren Bulegoko Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren genero-estrategia landu da**.

Aldi berean, **genero-ekitatea eta emakumeak ahalduntzea sustatzeko tresna metodologikoei buruzko prestakuntza-prozesuaren lehen etapa egin da Habanan**, kultura-ondarearen kudeaketan genero-ikuspegia sendotuz. Prozesu hori Euskal Autonomia Erkidegoko adituek eman

dute, eta proiektuan implikatuta dauden eta erakundearen lan soziokulturalean zuzenean parte hartzen duten Habanako Historialariaren Bulegoko zuzendariordeztetako eta kultura-erakundea deetako langileei zuzenduta egon da.

Era berean, **emakume artista eta intelektualek —batez ere kubatarrek— zeramika-sorkuntzan, arkitekturan, hirigintzan eta barne-diseinuan egiten duten lana eta ekarpena ikusarazteko eta zabaltzeko aurreikusitako ekintzak hasi dira**; horretarako, hitzaldi-zikloak, era-kusketak eta nerabeentzako sorkuntza-tailerrak antolatu dituzte. Ekintza horietan guztietan, eskubideen ikuspegia artearen eta kulturaren bidez lantzen saiatu gara, emakumeak esparru horietan parte har dezan sustatzu.

Azkenik, **kalteberatasun-egoeran dauden lurraldoko emakumeentzako arreta psikosozialeko gune bat jarri da abian**, zeinak Casa de la Obra Pía museoan baitu egoitza, Habanako Historialariaren Bulegoko Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren barruan. 2022. urtearen erdialdetik aurrera, lurraldean berria den espazio horrek zerbitzu soziokulturalak ez ezik prestakuntza eta lagunza psikologikoa ere eskaintzen dizkie interesa duten emakumeei. Zerbitzu horien artean daude eskulan-tailerrak, erakusketak eta tailerretan eginiko produktuak saltzeko azokak; era berean, gai interesgarriak jorratzeko hitzaldi-saioak eta zinema-eztabaidak ere egiten dira, eta, oro har, emakumeen garapen emozionalari eta ahalduntzeari laguntzen dioten beste jarduera batzuk.

Ekimen hori Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziaren finantzaketarekin garatzen da, zeinak 600.000,00 € bideratu baititu, orotara 849.379,17 €-ko aurrekontua duen proiektu horretara.

## KUBA

### **HEGOALDEKO ONDARE-HIRIEN HIRI- ETA KULTURA-INGURUNEA HOBETZEN LAGUNDUZ, HABANA ETA SAINT-LOUIS (SENEGAL) ARTEKO EKIPAMENDUTIK ETA ESPERIENTZIA-TRUKETIK ABIATUTA**

Ekimen horren helburua da Habana Zaharreko hiri- eta kultura-ingurunea hobetzea, eta Senegalgo Saint-Louis hiriaren ondare-garapenari laguntzea. Horretarako, 2022an indartu egin da 2020an abiarazitako prozesua, zeinaren helburua baita Hegoalde Globaleko herrialdeen (Habana/Saint-Louis) eta Bilboren arteko jakintzak, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzea, ondarearekin loturik.

Truke horren puntu nagusi gisa, lan-misio bat egin da Habanan (Kuba), azarotik abendura bittartean. Eginkizun horretan parte hartu dute Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetza, Biziki-detza eta Jaietako zuzendariak, KCD GGKEren lankidetza-proiektuen zuzendari eta espezialista teknikoetako batek, Saint-Louiseko udal-agintariek, eta Hahatay Son Risas de Gandiol GGKEko zuzendariak, eta haienkin izan dira, orobat, Habanako Historialariaren Bulegoko aditu-talde bat eta zenbait zuzendari.

Habanako Historialariaren Bulegoa osatzen duten erakunde eta zentro soziokulturalen gidatutako bisiten bidez, bai eta lan teknikoko jardunaldien eta lortutako emaitzen aurkezpenen bitartez ere, Senegalgo ordezkariei helarazi zaizkie Habanako Historialariaren Bulegoko kudeaketa-ereduaren esperientzia eta Habanako Hirigune Historikoaren berreskuratze-prozesu integrala —gizateriaren kultura-ondarea da—, bai eta Saint-Louisen erreplika daitezkeen jardunbide egokiak ere.

Esparru kulturallean, Senegalgo ondare immaterialari eta kulturari eta Kubako afrikar matri-zeari lotutako kultura-ondareari buruzko tailer bat egin da, Habanako Historialariaren Bulegoko

Casa de África museoko lantaldeak antolatuta. Tailer horri esker, **Saint-Louisek eta Habanak partekatzen dituzten puntuak ezagutu eta trukatu dira**, eta, hala, etorkizunean lantzko sinergiak topatu dituzte Kubako afrikar matrizea babesteko eta, oro har, bi nazioen ondare materiala eta ez-materiala zaintzeko.

Bilboko Udalak 70.000,00 €-ko finantzaketa eskaini dio proiektu horri.

## SENEGAL



### KOMUNIKAZIOA ETA KULTURA, GANDIOLEKO SUNU XARIT AMINATA KULTURA-ZENTROAN EMAKUMEAK ETA GAZTEAK AHALDUNTZEKO. III. FASEA

2022an amaitu da proietkua, eta, hari esker, Gandioleko Tabax Nité garapen-poloan **Emakumeen Etxea** eraiki eta abian jarri da. Horrekin, proietkuan aurreikusitako **genero-estrategian** sakondu da.

Diziplina anitzeko aditu-talde batek modu iraunkorrean erantzuten die udalerrian antzematen diren eta partaidetza komunitario handia duten beharrei, eta prestakuntza, aholkularitza, babesia eta arreta integrala eskaintzen dizkie emakumeei. Hori horrela, sustatutako gizarte-eraldatiketarako komunikazio-prozesu komunitarioetan sendoturik geratu da emakumeen eginkizuna. Aldi berean, **osasuna eta autozaintza** bultzatzen dira, baita **ahaldunze ekonomikoa eta lidergoa** ere, eta barnean hartzen dira, orobat, trukeak eta topaketak beste udalerri edo erakunde batzuetako emakumeekin.

Proietkua Bilboko Udalak finantzatu du osorik, eta 210.000 € bideratu ditu hiru urtetan egikaritzeko.



Emakumeak eta eraikuntza iraunkorra Ganolgo Tabax Nité garapen-gunean (Senegal)

## SENEGAL

### HONDAKINAK KUDEATZEKO SISTEMA INTEGRAL BAT MARTXAN JARTZEA, GANDIOL HIRIAN OSASUNA ETA INGURUMENA ZAINTEKO

Gandiolek egundoko arazoa du hondakin-kopurua areagotu izanaren ondorioz, ez baitira kudeatzen. Azpiegitura-falta da horren arrazoi nagusia, eta ez dago programa publikorik, benetan gauzatzen denik eta beharrezko baliabideak bideratzen dituenik. Horretaz gainera, komunitatearen portaerarekin eta informazio-faltarekin lotutako kausak gehitu behar dira.

2022an amaitu da proiektua, eta martxan geratu da **DEFARATT, plastiko gogorra birziklatzeko enpresa**. Enpresa hori adobez eta tokiko antzoko materialez eraiki eta hornitu da, erakundearen bereizgarri den eraikuntza jasangarriaren esparruan.

3 pertsonako gizatalde batek orpoz orpo lan egin du komunitatearekin, eta sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzeko kanpainak eta ekintzak gauzatu dituzte. Horrekin, kontzientzia eta jarduteko gaitasuna areagotu nahi dituzte, finean, **Gandioen osasuna eta ingurumena zaintze-ko**.

Proiektu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren lagunza du, zeinak 105.777 € bideratu baititu — hau da, proiektuaren finantzaketa osoa—.

## SENEGAL

### **EMAKUMEEN EKINTZAILETZA ETA ONGIZATEA SUSTATZEA EKOLOGIKOKI JASANGARRIAK DIREN PROIEKTUEN BIDEZ, ETA TOKIKO KULTURARI BALIOA EMATEA GANDIOLEN**

2022an, **proiektuak emakumeen ahalduntzea, haien osasuna eta ongizatea sustatu ditu**, guztia ere haien nortasun kulturala abiapuntu harturik. Hala, balioa eman die emakumeei tokiko komunitatearen aurrean, eta ingurumen-jasangarritasuna sustatu du.

**Arropa eta osagarriak egiteko eta saltzeko Nité Textil enpresa eratu da** gaur egun Gandioleko lau emakume wolofek osatutako talde batek gidatua, eta azpiegitura bat eraiki da Tabax Nité garapen-poloan, ekologikoki jasangarriak diren tokiko materialez eta teknikaz egina. Ondoren, ekipamenduz hornitu da azpiegitura hori, eta han jarri dira martxan tailerra, biltegia eta jendeari irekitako denda. Enpresak bere irudiaren aldeko apustu sendoa egin du sare sozialetan, eta dagoeneko jaso ditu enkarguak Saint-Louisetik, parte-hartzaleei opari gisa ematen zaizkien ekitaldi publikoetan banatzeko —adibidez, Nité Textil enpresak egindako poltsak—.

Horretaz gainera, proiektuan elikadura- eta higiene-gaien eta zaintza pertsonaleko produktuen ekintzaileta indartu da, hainbat emakumek gidatuta, guztia ere autokudeaketa hobetzeko ekipamendu eta tresnekin.

Herritarra sentsibilizatu dituzte, orobat, emakumeek ez ditzaten erabili azala zuritzeko baliatu ohi dituzten krema zuritzaire kaltegarriak.

Era berean, **emakumeen ekimen ekonomikoak** sustatu dira, genero-ikuspegi dekolonial eta panafrikanista duten kultura-ekitaldien eta komunikabide komunitarioen bidez.

Proiektu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren lagunza du, zeinak 100.000 € bideratu baititu — hau da, proiektuaren finantzaketa osoa—.

## SENEGAL

### **GANDIOLEKO EMAKUMEEN OSASUNA, GU GUZTION ONDASUNA. III. FASEA**

Proiektua 2022ko abenduan onartu eta hasi zen, eta jarraipena ematen die aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako hainbat ekimeni.

Haren **helburua da Gandioleko emakumeen ugalketa- eta sexu-osasuna hobetzea, bai eta laneko osasun integrala ere**, eta, horretarako, udalerriko osasun-sistema sendotu nahi dute, helburu hauetan oinarrituta:

- Anbulantzia medikalizatu batez hornitzea, paziente larriak segurtasun-baldintzetan eraman ahal izateko Saint-Louiseko ospitalera (2020an Ndiegunea Gandioleko osasun-postua eraiki eta ekipatu ondoren).

- Laneko arriskuen prebentziorako estrategia bat diseinatzea, Hahatayk epe laburrean bultzatzen edo bultzatuko dituen lanbide berriak —tradizioz maskulinizatuta egon direnak— segurtasun-baldintzetan egiten direla bermatzeko.
- Gandioleko Emakumeen Etxeko taldeari aholku ematea emakumeen, eta bereziki, emakume gazteen, sexu- eta ugalketa-osasunerako.
- Genero-indarkeriaren aurkako jardunbide egokiak sustatzea, komunikazio-kanpainen, bittarteko komunitarioen eta kultura-ekintzen bidez, sareko aliantzakin.

Hori guztia artikulatuta dago Gandioleko garapen komunitarioko poloa osatzen duten ekipo eta azpiegiturekin: **Aminata Kultura Zentroa, Komunikazio Komunitarioko Zentroa** eta hango komunikatziale komunitarioen sarea, eta **Gandioleko Emakumeen Etxea**.

Proiektu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza du, zeinak 100.000 € bideratu baititu —hau da, proiektuaren finantzaketa osoa—.

## SENEGAL



### KOMUNIKAZIO KOMUNITARIOA, GANDIOLEN GARAPEN ENDOGENO, BERDINTASUNEZKO ETA JASANGARIAREKIN KONPROMETITUTAKO HERRITARRAK SORTZEKO. II. FASEA

2022an, proiektuaren bigarren fasea gauzatzeko aldiaren erdira iritsi da. Fase hori emakumeek eta gazteek garapen endogenoa, berdintasunezkoa eta jasangarria izateko eskubidea baliatzeko bideak hobetzen ari da, eta, horretarako, **ikuspegi ahalduntailea, dekoloniala, feminista eta eraldatzailea duen komunikazio komunitarioko estrategia bat baliatzen dute**. Era berean, garapen komunitarioko eredu hasiberri bat biderkatu nahi du, eta biztanleriaren gabeziak eta beharrak identifikatu, modu jarraituan hobetzen joateko. Horretarako, oinarri hauek dauzka zehaztuta:

- Bi prestakuntza-ziklo berri Komunikazio Komunitarioko Zentroan (Gandioleko emakume eraikitzaileek zabaldu dute zentroa), tokiko erakundeengaitasun tekniko, komunikatibo eta politikoak indartuko dituztena, nahi den garapen-ikuspegia areagotu dezaten. 2022an da-goeneko garatu da prestakuntza-zikloetako bat.
- Irrati komunitarioa indartzea eta gizarte-komunikazioko kanpainak garatzea, hemezortzi landa-herrixkatan giza eskubideak eta emakumeen eskubideak sustatzeko eta ingurumenaren aldetik jasangarriak diren praktikak gauzatzeko.



Ekintzaileta-tailerra Gantiolgo Emakumeen Etxean (Senegal)

- Nekazaritza Ekologikoko Berrikuntzarako Gune Esperimental bat abian jartzea, autojasan-garritasunerako, elikadurarako eta osasunerako eredu pilotu berritzaleak sortzeko.

Proiektu horrek GLEAren laguntza du, zeinak 433.181,60 € bideratu baititu orotara 541.777 €-ko aurrekonturako.

## EGIPTO, LIBANO ETA EUSKAL HERRIA



### **EMAKUME ZINEMAGILE ETA KOMUNIKATZAILEEN ARTEKO ALIANTZAK ETA SAREAK INDARTZEA, HAINBAT HERRIALDETAN EMAKUMEEN BERDINTASUNA ETA ESKUBIDEAK BERMATZEKO. EGIPTOTIK MUNDURA**

KCD GGKEk konpromisoa hartu du gizarte-komunikazioko prozesuak bat besteko, garapena bultzatzeko bide gisa. Konpromiso hori oinarri harturik, lagunza eskaintzen die emakume zinemagileei eta haien lagunza-sareak indartzeko prozesuei 2013tik, Egiptoko Klaketa Árabe ekoizpen-etxe sozialarekin batera. Gizarta eraldatzeko komunikazio-tresnak baliatzen dituen zinemaren bidez, gizarte bidezkoagoak eta jasangarria-goak lortu nahi dira, giza eskubideak eta kulturartekotasuna gehiago errespetatzen dituztenak.

Urte hauetan zehar, **proiektua sendotzen joan da, eta gero eta gehiago txertatu dira generoa eta gizarte eraldatzeko komunikazio-tresnak**; hala, inpaktu handiagoko proposamenak egitea lortu da.

2022an, proposamenak funtsezko hiru estrategia izan ditu ardatz: eskaintza cinematografiko bat sortzea emakumeen ikuspegia oinarri harturik, emakume zinemagileen gaitasunak indartzea, eta haien arteko ahizpatasun-loturak indartzea eta sareak sortzea.

**Emakumeen ikuspegia jasotzen duen onlineko eskaintza cinematografikoak**, finean, emakume zinemagileen lanak biltzen ditu, bereziki bideraturik mundu arabiarra. Era berean, aurrez aurreko emanaldi-saioak ere egiten dira Libanon eta Bilbon. Eskaintza horrekin batera, eztabidak eta maisu-eskolak ere ematen dira, kontzeptuak barneratzen eta hausnartzen laguntzeko.

**Emakumeen prestakuntza eta gaitasunak indartzea da** proposamenaren beste puntu nagusiak bat; ikus-entzunezko komunikazioaren arloan emakumeei zuzendutako prestakuntza-eskaintza bat da, emakume gehiago komunikazioaren munduan sar daitezen erraztuz, haien ahotsak bertan islatuta gera daitezen. Prestakuntza-proposamen hori zaildu egin da, eta, emakumeen arteko trukea sortzeko eta ahizpatasuna sustatzeko konpromisoari eutsiz, gaur egun prestakuntza oso profesionala eskaintzen zaie komunikazioaren munduan bidea egin nahi duten emakumeei:

- **Lehen ebaketako tailerrean**, amaitu gabeko proiektu cinematografiko bat duten emakume arabiarrek arlo horretako hainbat profesionalen ekarpenak, oharrak eta iradokizunak jasotzen dituzte. Klaketa Árabe ekoizpen-etxeak, halaber, generoa, ingurumena, giza eskubideak, jasangarritasuna eta antzeko edukiak nola txertatzen diren azpimarratzen du. Helburua da obra berriro ere zuzentzea eta amaitzea, nazioarteko zinema-zirkuituetan leku handiagoa izan dezan.
- **Sormen-dokumentalaren tailerra** Egiptoko emakumeei zuzenduta dago: ikus-entzunezko komunikazioan gaitasunak izanik, profesionalak ez diren emakumeei, hain zuzen. Hala, arlo horretako profesionalen eskutik, zuzendaritzari, argazkigintzari, edizioari eta abarri buruzko ezagutzak eskuratzentzitzen dituzte, dokumentalak ikuspegi sozial eta estetiko egokiarekin egiteko.
- **Film laburrak garatzeko tailerrean** ikus-entzunezko aholkularitza ematen zaie garapen eta idazketa fasean dauden film laburrei. Era berean, lanaren edukiei buruzko aholkularitza

espezifikoak ere egiten da, generoari eta maskulinitate berriei dagokienez, eta, hartara, gai horiek kontzientziatutako zinemagileen belaunaldi bat sortzea da helburua, kontzientzia hori beren lanetan isla dezaten.

Proiektuaren estrategia ez da prestakuntza bakarrik; tailer horiek batera, **lagunza-prozesu bat** egiten da emakumeak komunikatzaile gisa sendotu daitezen. Horretarako, haien proiektuak garatzeko finantzaketa bilatzen da, eta nazioarteko zinema-jaialdietako zirkuituetan txertatzen dira haien lanak, hala nola Berlinale zinema-jaialdian.

Bada gero eta indar handiagoa hartzen eta sendotzen joan den beste faktoreetako bat ere; hau da, **zinemagileen sareak sortzea**. Alde batetik, dagoeneko osatuta dagoen **Zinemagileen artea** nazioarteko sarea indartzea, eta, bestetik, mundu arabiarrean sare bat sortzea eta indartzea, sormen-dokumentalaren tailerreko ikasle ohiiek osaturik. Sare hori sarritan elkartzten da esperimentziak trukatzeko, elkarrekin hausnartzeko eta beren ikus-entzunezko lanen inguruko aholkuak emateko.

Proiektu hori Klaketa Áraberan, KCD GGKEren eta zinema sozialean diharduten hainbat profesionales eta erakunderen arteko koordinazio-ariketa gisa finkatu da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 119.999,99 euro bideratu ditu hura finantzatzerako 2022an (150.615,86 € aurrekontua du orotara).



Dokumental sortzailearen tailerrean, El Cairo 2022, parte hartu duten emakumeak

## EL SALVADOR



### KOMUNIKAZIORAKO ESKUBIDEA BULTZATUZ, ADIERAZPEN-ASKATASUNA URRATZEN DEN TESTUINGURU BATEAN

El Salvadorreko komunikabide handien nagusitasunari aurre egiten laguntzeko gaitasuna duten ikus-entzunezko 2 ekoizpen-etxe ezarri ondoren, El Salvadorreko Equipo Maíz eta ACUA (Uraren eta Nekazaritzaren aldeko El-karte Komunitarioa) elkarteeek 2022an hasi den 2. fase bat planteatu zuten, Euskadiko Bakea eta Alkartasuna eta KCD GGKE garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen batera.

Giza eskubideak erabat betetzea eskatuko duen herritartasun aktiboa eraikitzea helburu gisa harturik, **giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeak indartzeko estrategia bat ezarri da**. Horren bitartez, alda-



rrikan-agendak kokatzea eta komunikaziorako eta adierazpen-askatasuneko eskubidea segurtasunez erabiltzea lortu nahi da.

Horretarako, 3 estrategia ezarri dira, horietako bat **komunikazio kontrahegemoniko eta anti-patriarkalaren defendatzaileen gaitasun tekniko, politiko eta estrategikoak indartzera bideratuta**. 2022an, hainbat jardunaldi eta tailer egin dira (antzerkia baliatuz erreminta gisa) emakumeen eskubideen eta jasangarritasunaren defendatzaileei zuzenduta. Ildo horretan, arreta berezia jarri zaie ura eskuratzeko eta elikadura-subiranotasuna izateko eskubideari, egitura patriarkalei, adierazpen-askatasunari, segurtasun digitalari eta komunikatzeko modu berriei.

Beste estrategietako bat **erakundeak indartzea izan da, aldarrikapen-agendetan oinarritutako komunikazio-produktuak egiteko eta zabaltzeko**. 2022an hainbat produktutan lan egin da, hiru kanpainari loturik: «Justiziaren eta herriaren askatasunaren alde», «Defenda ditzagun defendatzaileak» eta «Urak mugitzen gaitu». Horretarako, herrialdean diharduten hainbat sarrerakin lan egin da (irrati komunitarioen sarearekin, erakunde aliatu eta elkartuen sarearekin, txiolarien sarearekin eta Bálsamo inguruko lidergoen sarearekin). Halaber, Bálsamo Radio y Televisión etxeak ekoitzitako fikziozko bi film laburren dibulgazio-prozesu bat egin da ACUA-ren aliatu diren erakundeekin eta nazioarteko lankidetzarekin, nazioko eta nazioarteko zinema-jaialdi eta -ekitaldietan.

Azkenik, **babes eta segurtasun integraleko baldintza instituzionalak sortzeko estrategiari dagokionez**, genero-ikuspegia duen babes-plan integral bat taxutu da, eta hura ezartzeko beharrezkoak diren ekintzak gizarteratzen eta koordinatzen hasi da. Arreta psikosoziala eman da, emakume liderren osasun mentalarekin eta egonkortasun emozionalarekin lotutako alderdiak lantzen. Halaber, Erdialdeko Amerikan esperientziak trukatzeko guneak sortu dira, komunitateek eskubideen defentsan egiten duten borrokari buruz eta adierazpenaren erabilera askearen eta komunikaziorako eskubidearen urraketei buruz.

GLEAK 595.824,00 €-ko finantza-laguntza eman du proiektu horretarako, zeinak 745.824,51 €-ko aurrekontua baitu orotara.



Hirigintza-proiekturako komunitatetik ateratzeak eragindako bizilagunari elkarrizketa (El Salvador)

## EL SALVADOR



### KOMUNIKAZIORAKO ESKUBIDEAREN ETA ADIERAZPEN ASKATASUNA-REN ERABILERA SEGURUA EL SALVADORREN

Proposamen hori sortzeko arrazoien artean ageri dira, esaterako, kazetarien eta komunikatzaileen adierazpen- eta komunikazio-askatasuna ia hutsaren hurrengoa izatea eta askatasun horren galera eztabaideazina, bai eta estatuak giza eskubideen defendatzaleei egiten dien gero eta jazarpen handiagoa ere. Egitasmo horrekin, **irratiko komunitarioak indartu nahi dira, komunikaziorako eta adierazpen-askatasunerako eskubidea modu seguruau gauzatzeko.**

Horretarako, 3 estrategia bereizi ezarri dira: irratiko komunitarioen eta horiek osatzen dituzten sareen komunikazio-produktuak sortzeko gaitasunak handitzea; gaitasun teknikoak, komunikazioaren alorrekoak eta politikoak indartzea, irratiko horien diskurtsoa eta agendak hobeto posizionatzeko adierazpen- eta komunikazio-askatasuna oinarri harturik; eta, azkenik, irratiek beren agendak abian jarri ahal izateko baldintzak sortzea, kideen osotasun fisikoa, mentala eta emocionala bermatuz, komunikazioan eta adierazpen-askatasunean diharduten pertsonen aurkako urraketak eta abusuak nagusi diren ingurune batean.

GLEAk 591.275,28 €-ko finantza-lagunza eman du proiektu horretarako, zeinak 739.361,23 €-ko aurrekontua baiotz orotara.

## KCD GGKE-REN LANAREN JARRAITUTASUNA 2023AN

KCD GGKEren ustez, garapenerako lankidetzaren arloko lan-estrategian aurrera egiteko, beharrakoa da epe ertain eta luzeko prozesuetan laguntzea. Prozesu horietan, proiektu espezifikoak helburu handiagoak lortzeko tresnak baino ez dira izango. Ildo horretan, 2023an **subjektu politikoak sortzea erraztuko duten prozesuak bultzatuko dira, eta, hartara, giza eskubideak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eskatzen lagunduko da.**

Bestalde, garapenerako lankidetzaren arloko estrategia hertsiki lotuta dago hezkuntza eta **komunikazioa gizarte-eraldaketarako tresnatuzt Hartzen dituen ikuskerari**. Hortaz, KCD GGKEk 2022rako identifikatutako eta babestutako lankidetza-proiektuek kontzeptu horiei eutsiko diete beren ardatz nagusian, eta komunikazioa proiektuak garatzen diren herrialdeetako herritarren errealityearazko eta aldatzeko faktore gisa txertatuko da.



# 1 | ¿QUIÉNES SOMOS?

Kultura, Communication y Desarrollo -KCD ONGD- es una **Organización no Gubernamental de Cooperación al Desarrollo**, declarada como Entidad de Utilidad Pública por el Gobierno Vasco e inscrita con el número AS/B/14091/2008 en el Registro General de Asociaciones del País Vasco.

KCD ONGD es una asociación independiente y laica que surge con la inquietud de **alcanzar un Desarrollo Humano Equitativo y Sostenible**. En la búsqueda de su objetivo trabaja con la comunicación como la herramienta que permite entrelazar diferentes áreas de trabajo como la **Educación para la Transformación Social (EpTS)**, la **incidencia política y la Cooperación Internacional**. A través de su estrategia, KCD ONGD pretende contribuir a **construir una ciudadanía crítica, equitativa, respetuosa con la diversidad y socialmente comprometida**.

KCD ONGD asume que para realizar este recorrido son necesarias sinergias y alianzas. Por ello, forma parte de la **Coordinadora de ONGD de Euskadi** desde 2014. Desde 2015 adquiere también su **compromiso con la Agenda 2030** para el Desarrollo Sostenible y los 17 Objetivos propuestos por las Naciones Unidas; y desde 2017 KCD ONGD forma parte de **(H)abian 2030**, la Estrategia vasca de Educación para la Transformación Social (EpTS). De igual forma, apuesta por el **trabajo de cooperación con diversas contrapartes del Sur Global** en la búsqueda de la transformación social y la lucha contra las injusticias.

## MISIÓN

KCD ONGD tiene como MISIÓN fomentar un Desarrollo Humano, Intercultural, Equitativo y Sostenible a través de la Comunicación y la Cultura

## VISIÓN

Como ONGD pretende convertirse en un referente internacional en la utilización de la Cultura y la Comunicación como estrategias transformadoras para la consecución de un Desarrollo Humano Intercultural Equitativo y Sostenible.

## PRINCIPIOS DE KCD ONGD

1. Una ciudadanía global y socialmente comprometida.
2. Una comunicación democrática, diversa y plural.
3. Integración de colectivos y comunidades tradicionalmente excluidas.
4. La igualdad de género y el empoderamiento de las mujeres.
5. El respeto a la diversidad cultural, étnica, religiosa, política, funcional, social, sexual y de identidad de género.
6. Los Derechos Humanos individuales y colectivos.
7. Una relación sostenible con la naturaleza.
8. Una cultura de paz positiva.
9. Relaciones entre personas y pueblos en términos de igualdad.
10. Humanización de los procesos migratorios.

## KCD ONGD APUESTA POR LA EQUIDAD

El compromiso de KCD ONGD en cuanto a equidad de género está orientado a **acabar con la discriminación y la violencia** que sufren millones de mujeres y personas que no encajan en

la heteronormatividad del sistema patriarcal. Para ello, apuesta por impulsar **la participación de las mujeres** en los ámbitos políticos, sociales, culturales y económicos, así como promover su empoderamiento. Esto requiere, además, **implicar a hombres y mujeres** en el trabajo por la igualdad y la eliminación del dominio de la norma heterosexual y la discriminación de otras orientaciones e identidades sexuales.

Desde su fundación, KCD ONGD surge con una clara apuesta institucional por **promover la equidad de género de forma transversal en todas sus actividades** y en las dinámicas propias de la entidad. Y así lo recoge en sus planes estratégicos, integrando un enfoque feminista en las acciones de Cooperación y Educación para la Transformación Social, acorde a su vez con las políticas, documentos y códigos propuestos por entidades públicas y privadas vascas especializadas. Por ello, KCD ONGD apuesta por las **acciones diarias que permitan transformar las realidades** en todos los ámbitos de la vida en sociedad.

## ESTRUCTURA



Más información sobre la estructura de la entidad: <https://www.kcd-ongd.org/conocenos>

## VOLUNTARIADO

KCD ONGD cuenta con apoyo de personas y profesionales diversos que han hecho posible el desarrollo del Festival Internacional de Cine Invisible “Film Sozialak” de Bilbao, la Caravana de cine realizado por mujeres “Entrecineastas” y otras actividades y eventos de la entidad durante 2022.



Alumnado del CIFP Tartanga, de Erandio, encargado del apoyo a la regiduría de las galas del 14º FICI Bilbao 2022

- 16 personas como **Comité externo** para el visionado de las películas antes de su selección final en el Festival (10 mujeres y 6 hombres).
- 21 personas como **Jurado del Festival** para premiar las obras de la 14<sup>a</sup> edición del *Invisible* (16 mujeres y 5 hombres).
- 24 **personas con tareas de apoyo** en sala de cine durante el Festival y la Caravana (19 mujeres y 5 hombres).
- Alumnado del Ciclo de Grado Superior “Realización de proyectos Audiovisuales y Espectáculos” del CIFP Tartanga LHII, compuesto por 31 personas (12 mujeres y 19 hombres), apoyando la **regiduría** de la 14<sup>a</sup> edición del Festival.
- 568 **profesoras y profesores** de los 15 centros educativos con los que la entidad mantiene convenios de colaboración, durante los talleres, Festival y otras actividades.

Para formar parte del equipo voluntario o cualquier otra colaboración con KCD ONGD puedes escribir a: info@kcd-ongd.org.

### **ACUERDOS DE COLABORACIÓN CON ENTIDADES EDUCATIVAS**

- Universidad del País Vasco UPV/EHU
- Universidad de Deusto
- IES Ibarrekolanda BHI, Bilbao
- CIFP Txurdinaga LHII, Bilbao
- CIFP Elorrieta Erreka Mari LHII, Bilbao
- CIFP Nicolás Larburu LHII, Barakaldo
- CIFP Tartanga LHII, Erandio
- IES Aixerrota BHI, Getxo
- CIFP Iurreta LHII, Iurreta
- IES Artaza-Romo BHI, Leioa-Getxo
- IES Mungia BHI, Mungia
- IES Ballonti BHI, Portugalete
- IES Saturnino de la Peña BHI, Sestao
- IMFPB Bituritxa OLHUI, Barakaldo
- IES Bengoetxe, Galdakao
- IES Gernika BHI
- IES Uribe Kosta BHI, Plentzia

### **COLABORACIONES CON OTRAS ENTIDADES LOCALES E INTERNACIONALES**

- Ekologistak Martxan Ekobaraka
- Zinegoak, el Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas gaylesbotrans de Bilbao
- HalaDzipo Musika Eskola de Barakaldo
- Zirkodomoa Barakaldo
- UN Etxea - Asociación del País Vasco para la UNESCO
- Plataforma de apoyo a las personas refugiadas Ongi Etorri Errefuxiatuak
- Muestra de Cine dirigido por Mujeres - Zinemakumeak Gara
- Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU

- Festival Internacional del Nuevo Cine Latinoamericano de la Habana, Cuba
- Festival Internacional de Cine Documental de Saint-Louis, Senegal
- Festival de Radio y Cine comunitario “El lugar que habitamos” de Oaxaca México

## CONTEXTO 2022

La Cooperación Internacional para el Desarrollo y la Educación para la Transformación Social llevada a cabo entre las ONGD y las instituciones vascas comenzó hace casi 35 años.

Desde sus inicios, **las ONGD tuvieron que aprender a moverse en un mundo dominado por las políticas neoliberales**: filosofía económica que reduce a la mínima expresión la intervención de los estados y concentra aún más la riqueza y el poder entre los más enriquecidos. Como respuesta, movimientos sociales de todo el mundo y muchas ONGD siempre han mantenido el rechazo a este tipo de globalización. Y en la actualidad **seguimos trabajando en un mundo que encadena continuas crisis** generadas por guerras, cambio climático, falta de alimentos..., y un mundo fragmentado que puede dar paso a una nueva guerra fría más compleja que la anterior.

Son **años de trabajo en actuaciones en el Sur Global**, colaborando y apoyando a organizaciones y personas que denominamos “contrapartes”, organizaciones que asumen los proyectos de desarrollo en sus propios territorios trabajando siempre en beneficio de la población local de sus países. Nuestras contrapartes realizan su actividad a través de la elaboración y ejecución de proyectos de desarrollo con el apoyo de las ONGD del Norte que consiguen financiación a través de las instituciones.

Hay que **destacar también la labor de las ONGD en el ámbito de la Educación para la Transformación Social (EpTS)**, tanto en el Norte como en el Sur Global. Desde su nacimiento en Euskadi se han llevado a cabo una gran diversidad de actuaciones trabajando en estos procesos socio-educativos para generar ciudadanías críticas y responsables, tanto en el ámbito individual como colectivo, con la intención de generar sociedades más justas, equitativas y un medio ambiente más saludable.

